

INGURUMEN-ZAINTZA
ESTRATEGIKOKO TXOSTENA:
EKONOMIA ZIRKULARRARI
BURUZKO 2024rako 10 GAKOAK
2023ko ekaina



2023ko ekaina

Argitaratzailea:
Basque Ecodesign Center

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta
Ingurumeneko Saila - Eusko Jaurlaritza

Urkixo Zumarkalea, 36 – 6. solairua.
48011 Bilbao
Tel.: 944 23 07 43

www.basqueecodesigncenter.net

Edukia:
Grunver Sostenibilidad enpresaren
laguntzarekin prestatu da dokumentu hau.



Ekonomia zirkularrari buruzko 2024rako 10 gakoak **4-7**

Driver arautzaileak: Europako Itun Berdean integratzea **8**

Driver arautzaileak: Denbora-ardatza **9**

Jarduketa-ardatzak **10-47**



Gardentasuna eta
posizionamendua
10-19



Ekonomia zirkularrerako
ekodiseinua
25-31



Bigarren mailako lehengaiak
eta hondakinen kudeaketa
25-31



Deskarbonizazioa bizi-
zikloaren ikuspegitik
32-38



Zero
pollution
39-41



Finantza
jasangarriak
42-47

-Legenda-



Driver
arautzailea



Merkatuko
driver-a



Tresna



Automobilgintzaren
sektorea



Eraikuntzaren
sektorea



Energia-sorreraren
sektorea



Banaketaren
sektorea



Metalaren
sektorea



Ekipo jasotzaileen
sektorea



Garraio-ekipoen
sektorea



Sorrera- eta transmisio-
ekipoen ekoizpenaren
sektorea



Finantza-sektorea



Ekonomia zirkularrari buruzko 2024rako 10 gakoak

Dokumentu hau Basque Ecodesign Center-ek zaintza-sistemaren bidez hartutako ezagutzan oinarrituta garatzen dituen ingurumen-zaintza estrategikoko txostenen bigarren edizioa da.

Sei jarduketa-gaitan egituratuta dago. Gai horiek **Europako Itun Berdearen** ("European Green Deal") jarduketa-ardatz nagusiek hartzen dituzte barnean:



Gardentasuna eta posizionamendua



Ekonomia zirkularrerako ekodiseinua



Bigarren mailako lehengaiak eta hondakinen kudeaketa



Deskarbonizazioa bizi-zikloaren ikuspegitik



Zero Pollution



Finantza jasagarriak

Edizio honetan, zaintza-txosten honek, sei ardatz tematiko horien inguruan izandako aurrerapen eta berrikuntza nagusiak biltzeaz gain, **Ekonomia zirkularrari buruzko 2024rako 10 jarduketa-gako nagusitzat** hartzen diren horietan jasotako informazio guztia biltzen du.

Gako horiek erantsitako taulan daude, eta zehatz-mehatz azalduko dira hurrengo.

Helburua da erronkak eta aukerak ulertzen laguntzea, eta datorren ekitaldian martxan jarri behar diren lan-ildoak errazago.

GAKOAK

- 1 European Sustainability Reporting Standards eta jasagarritasunaren arloko informazio korporatiboaren zuzentara
- 2 Produktu-pasaporte digitala eta ekodiseinuari buruzko erregelamendu berria (ontziak barne)
- 3 Ingurumen-alegazio esplizituen esparru berria eta "greenwashing"-a kontuan hartzea
- 4 Hornikuntza-katean, jasagarritasuna ebaluatzea
- 5 Produktuen zirkulartasuna ebaluatzeko irizpide berriak eta konpontzeko eskubidea
- 6 Bigarren mailako lehengaiak lehengai birjinen ordezkotza gisa erabiltzea
- 7 Lehengai kritikoei buruzko lege berria eta haien zaurgarritasunaren ondoriozko efektuak
- 8 Science Based Target Initiative (SBTI) eta 3. mailako emisioen erronka
- 9 Europako taxonomiara egokitzea, sei ingurumen-helburuetan oinarrituta
- 10 Emisio industrialei buruzko etorkizuneko zuzentara (IED – Industrial Emissions Directive)



Ardatzarekiko harremana:  Handia  Ertaina  Txikia  Harremanik gabea



1 European Sustainability Reporting Standards eta jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboaren zuzentzaraua

Argitaratzen diren European Sustainability Reporting Standards irakurrita, jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboaren zuzentzarauko baldintzak betetzeko zer motatako informazioa eman behar den jakingo dugu. Estandar horiek bat etorriko dira taxonomiari buruzko erregelamenduarekin.

Tresnak garatu beharko dira zuzentzarauko baldintzak errazago betetzeko, **hornitzaileak errazago ebaluatzeko eta erreputazio-sistemetako betekizunei erantzuteko**.

Zuzentzarauko baldintzek finantza jasangarriak sustatzen jarraitzeko tresna gisa ere balioko dute, enpresen eta haiek garatzen dituzten jardueren jasangarritasuna ebaluatzeko beharrezko informazioa emango baitie finantza-entitateei.

2 Produktu-pasaporte digitala eta ekodiseinuari buruzko erregelamendu berria (ontziak barne)

Ekodiseinuari buruzko erregelamendu berriaren proposamenak era guztietako produktuak hartu nahi ditu barnean, ekodiseinuko betekizunak jaso nahi ditu haien zirkulartasuna hobetzeko, eta produktu-pasaporte digital bat garatu nahi du hura errazago konpontzeko, berreskuratze eta birziklatzeko. Eragin handia izango duenez, beharrezkoa da **produktu-kategoria desberdinetarako ekintza eskuordetuen** argitalpena zaintzea eta zehaztuko diren betekizunei aurrea hartzea.

Betekizun horiek betetzeko, merkatuan dauden ingurumen-metrika desberdinak integratu behar dira, baita informazioa digitalizatu ere.

3 Ingurumen-alegazio esplizituen esparru berria eta "greenwashing"-a kontuan hartzea

Kontsumitzailearentzako ingurumen-informazioarekin erlazionatutako esparru arautzaile berriak, bi zuzentzarau-proposamenen bidez, **greenwashing-aren aurkako betekizunak eta debekuak** ezarriko ditu, eta nabarmen aldatuko du enpresek beren produktuen ingurumen-onurak ezagutarazteko duten modua.

Enpresek ondo ezagutu beharko dituzte zuzentzarauak greenwashing-aren aurka ezartzen dituen betebeharrak eta murrizketak, eta ezarritako metodologiak aplikatu beharko dituzte beren produktuen ingurumen-portaerari buruzko informazioaren berri emateko.

4 Hornikuntza-katean, jasangarritasuna ebaluatzea

Enpresek jasangarritasunaren arloan **arreta egokiz jokatzeari buruzko zuzentzarau-proposamenak** enpresa-portaera jasangarria sustatzea du helburu, filialak eta haien balio-kateak kontuan hartuta, beren jardueraren eragin negatiboei hel diezaieten. Horretarako, hornitzaile guztien datuak lortu beharko dituzte enpresek, eta trakzio-lan handia ere egin beharko dute ingurumenerako jasangarriak diren jardunbideetatik urrunen dauden kasuan. Horrenbestez, ebaluazio-sistema bateratu bat garatu behar da **erosketa berdeko eta zirkularreko irizpideak aplikatu ahal izateko**.

5 Produktuen zirkulartasuna ebaluatzeko irizpide berriak eta konpontzeko eskubidea

Produktu jasangarrien ekodiseinuari buruzko erregelamendu-proposamen berriak nahitaezko betekizunak izango ditu produktuen zirkulartasuna hainbat alderdiri dagokienez ebaluatzeko; besteak beste, **iraunkortasuna, konpongarritasuna, berriro manufacturatzeko gaitasuna, birziklagarritasuna eta bigarren mailako lehengaiak**.

Oinarri metodologikoak zehaztu dira, etorkizuneko erregelamenduetan edo egungoak berrikustean Europako Batzordeak zirkulartasun-irizpide horietan oinarritutako betekizunak ezarri ahal izan ditzan. **CEN/CENELEC/ETSI** erakundeei egindako **M543** aginduaren ondoriozko Europako arauak dira



6 Bigarren mailako lehengaiak lehengai birjinen ordezkio gisa erabiltzea

Hondakinen arloko Europako esparruak, **Europako 2018/851 Zuzentarauaren** esparruan ezarri zenak, hondakinen prebentzioari buruzko arauak sendotzen ditu, kontuan hartu beharreko jasangarritasun- eta zirkulartasun-irizpideak zabalduz eta material birziklagarriei eta bigarren mailako lehengaietako lehentasuna emanez. Halaber, zenbait produktuk izan dezaketen gutxieneko eduki birziklatuari buruzko betebeharrak eta ingurumen-jasangarritasuneko alderdien inguruko beste muga-balio batzuk ezartzen ditu.

Eskakizun berriak egiten zaizkie Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduko Sistema Kolektiboei, biohondakinak sartzen dira, eta proposamen legeak espezifiko berriak definitzen dira produktu-motaren arabera (ontziak eta bilgarriak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, bateriak...).

7 Lehengai kritikoei buruzko lege berria eta haien zaurgarritasunaren ondoriozko efektuak

Funtsezko lehengaietako buruzko Europako lege-proposamen berriarekin, **EBn lehengai kritikoen hornidura bermatzea** eta hirugarrenekiko menpekotasuna murriztea espero da. Enpresen testuinguruan, erakunde bakoitzak bere arriskuak ebaluatu beharko ditu, bere produktuan eta balio-katean zer motatako lehengai kritikoa eta zer kantitate dauden eta haiekiko zer menpekotasun-maila duen kontuan hartuta, soluzioak ezartzeko lehenengo urrats gisa.

Soluzio horietako batzuk lehengai kritikoa ordeztzea edo berriro zirkulazioan jartzea izan daiteke; horretarako, neurriak hartu beharko dira, **produktuen diseinutik hasi eta bizitzaren amaierako kudeaketa eta balorizazioa iritsi arte**, lehengai kritikoa berriro ekoizpen-zikloan sartzen direla bermatzeko.

8 Science Based Target Initiative (SBTI) eta 3. mailako emisioen erronka

Deskarbonizazioarako bidean, goraka ari da SBTi ekimenaren atxikitzen diren enpresen kopurua, eta neutraltasun klimatikora iristeko helburuak ezarri dira, zeinak lege-esparruko betebeharretatik harago baitoaz. Hala ere, 3. mailako emisioak sartzea, nola SBTi ekimenaren esparruan hala zuzentarauko betekizunak betetzeko, erronka eta ahalegin handia da erakundeentzat.

Hori dela eta, beharrezkoa da **balio-katea BEG emisioak kalkulatzera eta murrizketa-helburuak ezartzera bultzatzea**. Produktu-pasaporte digitala 3. mailako emisioak sartzearen erronkarako soluzioaren parte izan liteke, balio-kate osoko informazio-fluxua ahalbidetzen baitu.

9 Europako taxonomiari egokitzea, sei ingurumen-helburuetan oinarrituta


Badira Taxonomiari buruzko Erregelazioa (Ingurumenari buruzko Erregelamendu Eskuordetua) gainerako lau ingurumen-helburuei dagozkien hautapen-irizpide teknikoaren inguruko zirriborroak. Erregelamendu horrek hauek estaltzen ditu: **uretako eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria eta babesa, ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, eta biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta berreskurapena**.

Taxonomiari buruzko Erregelamenduaren xedea da **jarduera ekonomiko bat ingurumenaren aldetik jasangarritzat har daitekeen** zehazteko irizpideak ezartzea, inbertsio baten ingurumen-jasangarritasuneko maila finkatzeko aldera.

10 Emisio industrialei buruzko etorkizuneko zuzentaraua (IED – Industrial Emissions Directive)

2021ean, Europako Batzordeak "Zero kutsadura" ekintza-plana jarri zuen abian, aireko, uretako eta lurzoruko kutsadura osasunerako eta ekosistema naturaletarako kaltegarritzat jotzen ez diren, gure planetarako muga onargarriak errespetatzen dituzten eta, horrela, gai toxikorik gabeko ingurunea sortzen duten mailataraino murrizteko asmoz.

Ekintza-plan honetako ekintza nagusietako bat **Emisio Industrialei buruzko Zuzentaraua berrikustea** izan da. Berrikuspenak proposatzen du gaur egungo atalaseen azpitik dauden instalazioetara eta sektore berrietara (behi-aziendako abeletxeak, eta baterien eskala handiko ekoizpena) zabaltzea Zuzentarauaren helmena, eta **Teknika Erabilgarri Onenei** lotutako ingurumen-baliabideak erabiltzearen errendimendu-mailak nahitaez aplikatzea.



Europako Itun Berdearen eremuak

 Klimaren aldeko ituna eta klimari buruzko legea

 Industria ekologikoagoa izateko ahalegina egitea

 Kutsadura ezabatzea

 Proiektu ekologikoak finantzatzea

 Denentzako bidezko trantsizioa bermatzea

Txosten honetan ez dira aipatzen

 Etxeen efizientzia energetikoa handitzea

 Natura babestea

 Energia garbiak sustatzea

 Garraio adimendunagoan eta jasangarriagoan inbertitzea

 Baserritik mahaira

 Mundu-mailako aldaketa lideratzea



KLIMAREN ALDEKO ITUNA ETA KLIMARI BURUZKO LEGEA

✓ **Neutraltasun klimatikoa** lortzeko esparrua (klimari buruzko Europako legeria)
2021/119 (EB) Erregelamendua

⌚ **Karbonoagatik Mugan Doikuntza** egiteko Mekanismoa (CBAM)
2023/956 (EB) Erregelamendua



KUTSADURA EZABATZEA

EBren ekintza-plana: "Zero kutsadura airean, uretan eta lurzoruan"
(COM/2021/400)

⌚ **Emisio Industrialei** buruzko Zuzentaraua berrikustea
Zuzentarau-proposamena (COM/2022/056)

⌚ **Ibilgailu berrien CO₂ emisioen** arloko araudia berrikustea
2023/851 (EB) Erregelamendua

⌚ **Produktu kimikoen arrisku, etiketa eta ontzien sailkapenari** buruzko legeria berrikustea
Erregelamendu-proposamena (COM/2022/748)



PROIEKTU EKOLOGIKOAK FINANTZATZEA

Ekintza Plana: Garapen jasangarria finantzatzea (COM/2018/097)

EBko TAXONOMIA
2020/852 (EB) Erregelamendua

✓ **Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko helburuei** buruzko erregelamendu eskuordetua
2021/2139 (EB) Erregelamendu eskuordetua

✓ **Klimari buruzko ekintza** eskuordetu osagarria, **deskarbonizazioa bizkortzeko** eta 2050erako **neutraltasun klimatikoa** lortzeko; **gas naturala** eta **energia nuklearra** hartzen ditu barnean
2022/1214 (EB) Erregelamendu eskuordetua

⌚ **Helburu ez-klimatikoetarako irizpide taxonomikoen zirriborroa:**
Uraren eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa, ekonomia zirkularrerako trantsizioa, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, eta biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta berreskurapena

⌚ **Europako Bonu Berdeak**
Erregelamendu-proposamena (COM/2021/391)

✓ **Jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboa**
2022/2464 (EB) Zuzentaraua



DENENTZAKO BIDEZKO TRANTSIZIOA BERMATZEA

⌚ **Jasangarritasunaren arloan enpresek arreta egokia** izatea
Zuzentarau-proposamena (COM/2022/071)



INDUSTRIA EKOLOGIKOAGOA IZATEKO AHALEGINA EGITEA

Europa garbiagoa eta lehiakorragoa izateko ekonomia zirkularraren aldeko ekintza-plan berria (COM/2020/98)

⌚ **Pila eta bateriei** eta haien hondakinei buruzko erregelamendua
Erregelamendu-proposamena (COM/2020/798)

⌚ **Eraikuntza-produktuak** merkaturatzeko baldintza harmonizatuak
Erregelamendu-proposamena (COM/2022/144)

⌚ **Produktu jasangarriei aplikagarriak** zaizkien diseinu ekologikoko betekizunei buruzko erregelamendua
Erregelamendu-proposamena (COM/2022/142)

Produktuaren pasaporte digitala

⌚ **Kontsumitzaileak** trantsizio ekologikorako ahalduntzea
Zuzentarau-proposamena (COM/2022/143)

✓ **Biooinarriko plastikoetarako eta plastiko biodegradagarri eta konpostagarrietarako** EBren esparru politikoa
COM/2022/682

⌚ **Ontziak eta ontzi-hondakinak** erregulatzen dituen araudia berrikustea
Erregelamendu-proposamena (COM/2022/677)

⌚ **Ingurumen-alegazio esplizituen** justifikazioa eta komunikazioa
Green Claims ekimena
Zuzentarau-proposamena (COM/2023/0085)

⌚ **Produktuen konponketa sustatzeko** arau komunak
Zuzentarau-proposamena (COM/2023/0083)

✓ **Net-Zero arorako itun berde industrialaren** esparru politikoa
COM/2023/62

✓ **Trantsizio bikoitzaren babesean** lehengai kritikoak segurtasunez eta modu jasangarrian hornitzeko esparru politikoa
COM/2023/165

⌚ **Lehengai kritikoei** buruzko lege-proposamena
Zuzentarau-proposamena (COM/2023/160)

Oharra. Txostenean aurkeztutako ekimen esanguratsuenen zerrenda agertzen da eskeman, baina hemen jasota ez dauden beste ekimen batzuk ere aipatzen ditu txostenak.



2023

EUROPAKO EREMUA

✓ Gas naturaleko eta energia nuklearreko jarduerak taxonomiari buruzko erregelamenduan sartzea (deskarbonizazioa bizkortzeko)¹

⌚ Lehenengo arau-multzoarekin eskuordetutako ekintzak European Sustainability Reporting Standards²

⌚ Enpresa-estrategia Parisko Akordioan³ ezarritako gehieneko berotze globalarekin (1,5 °C) bateragarria izango dela bermatzen duen plan baten eskakizuna

⌚ Zenbait material (esaterako, burdina, altzairua edo zementua) inportatzeagatik tasa berriak, EBko produktuen eta inportatutakoen arteko karbonoaren prezioa berdintzeko⁴

⌚ Produktu kimikoen arrisku, etiketa eta ontziei buruzko⁵ sailkapen berria

⌚ Deforestazioari edo basoen narriadurari lotutako⁶ hornikuntza-kateetatik datozen produktuak merkaturatzeko debekua

Berrikuntza eta ordezkapena ahalbidetzeko lehengai kritikoak identifikatzeko irizpide estrategikoki garrantzitsuak definitzea⁷

Produktuaren bizi-ziklo osoan konpontzeko eskubidea eta konpongarritasun-indizea⁸

ESTATUKO EREMUA

✓ Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarriei eta hondakinak hondakindegietara eramateari eta errausteari⁹ buruzko zerga

✓ Ekoizlearen Erantzukizun Zabaldia ontzi komertzial eta industrialetara hedatzea¹⁰

✓ Elikatze-kateko enpresek elikagaien galerak prebenitzeko plan bat edukitzeko eta elikagai "itsusien", hurbiltasuneko, ekologikoen eta soltekoen salmenta sustatzeko betebeharra¹¹

2024

EUROPAKO EREMUA

⌚ Emisio industrialen muga berriak: txerri- eta hegazti-abeletxeetarako atalasea murriztea, eta behi-aziendako abeletxeak jasotzea eta bateriak¹² eskala handian ekoiztea

⌚ Ibilgailu elektrikoaren baterietarako, garraio-modu arinen baterietarako eta bateria industrialetarako karbono-aztarnari¹³ buruzko adierazpenaren betekizuna

⌚ Zirkulartasunaren eta informazioaren betekizunetarako lehenengo ekintza eskuordetuak argitaratzea (Ekodiseinuari buruzko Erregelamendua; Produktu-pasaporte digitalaren aurkezpena)¹⁴

⌚ Eraikuntza-produktuetarako ekodiseinuko eskakizun berriak, material birziklatuei eta birziklagarriei lehenetsuna emateko eta pasaporte digitalerako oinarria¹⁵ izango den datu-base bat ezartzeko

ESTATUKO EREMUA

✓ Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak sailkatzeko betebeharra⁹

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO EREMUA

✓ Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta altzairutegiko zepak isurtzeagatik kanon berria eta hondakindegira eramateko debekua¹⁶

⌚ Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen bigarren mailako agregakinei hondakin-amaiera emateko baldintzak ezartzea¹⁷
Informazio ez-finantzarioa emateari

2025

EUROPAKO EREMUA

✓ buruzko Zuzentarauaren menpe dauden enpresek jasangarritasunaren arloko informazioa² emateko duten betebeharra

⌚ Ibilgailu berrietan material birziklatuen gutxieneko edukiekin erlazionatutako eskakizuna (seguru asko, % 25-35 bigarren mailako plastikoz egina)¹⁸

⌚ Ibilgailuen CO₂ emisioak ebaluatzeko eta haiei buruzko informazioa emateko EBren metodologia, bizi-zikloaren ikuspegiarekin. 2028tik aurrera nahitaez eman behar da informazioa¹⁹

ESTATUKO EREMUA

⌚ 11/2018 Legearen eraginpeko enpresek urtero karbono-aztarna kalkulatzeko eta BEG emisioak murrizteko plan bat prestatzeko²⁰ duten betebeharra

EUROPAKO EREMUA

✓ Enpresa handiek jasangarritasunaren arloko informazioa² emateko duten betebeharra

- 1 R1 2022/1214 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, energia-sektore jakinetako jarduera ekonomikoei dagokienez 2021/2139 (EB) Erregelamendu Eskuordetua aldatzen duena, eta jarduera ekonomiko horiei buruzko informazio espezifikoa jendaurrean hedatzeari dagokionez 2021/2178 (EB) Erregelamendu Eskuordetua aldatzen duena
- 2 2022/2464 (EB) Zuzentaraua, enpresetako jasangarritasunari buruzko informazioa aurkeztearen ingurukoa
- 3 Jasangarritasunaren arloan enpresek arreta egokiz jokatzeari buruzko Zuzentarauaren proposamena (COM/2022/071)
- 4 2023/956 (EB) Erregelamendua, karbonoagatik mugan doikuntza egiteko mekanismo bat ezartzen duena
- 5 Produktu kimikoen arrisku, etiketa eta ontzien sailkapenari buruzko legeria berrikusteko Erregelamendu Proposamena (COM/2022/748)
- 6 Deforestazioari eta basoen narriadurari lotutako lehengai jakinak eta produktu eratorriak Batasuneko merkatuan merkaturatzeari eta Batasuneko merkatutik esportatzeari buruzko Erregelamendu Proposamena (COM/2021/706)
- 7 Funtsezko Lehengaien Europako Legea
- 8 Jardunbide desleialen aurka hobeto babestuta eta informazio hobea emanda kontsumitzaileak trantsizio ekologikorako ahalduz buruzko Zuzentarau Proposamena (COM/2022/143); Ondasunen kontsumo jasangarria: konponketa eta berrerabilera sustatzea (Ondasunen Kontsumo Jasangarriko Ekimena)
- 9 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa
- 10 1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa
- 11 Elikagaien galera eta xahuketa prebenitzeari buruzko Lege Proiektua
- 12 Emisio industrialei buruzko 2010/75/EB Zuzentaraua aldatzen duen Zuzentarau Proposamena (COM/2022/056)
- 13 Pila eta bateriei eta haien hondakinei buruzko Erregelamendu Proposamena (COM/2020/798)
- 14 Produktu jasangarriei aplikagarriak zaizkien diseinu ekologikoko betekizunak ezartzeko esparru bat ezartzen duen Erregelamendu Proposamena
- 15 Eraikuntza-produktuak merkaturatzeko baldintza harmonizatuak ezartzeko Erregelamendu Proposamena (COM/2022/144)
- 16 Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana 2030
- 17 Eraikuntza- eta eraispen-hondakinei buruzko dekretu-proiektua
- 18 Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak: EBko arauen berrikuspena
- 19 2023/851 (EB) Erregelamendua, turismo berrien eta ibilgailu komertzial arin berrien CO₂ emisioen inguruko portaera-arauak indartzeari buruzkoa
- 20 Karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzen duen martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretua aldatzen duen Errege Dekretuaren proiektua



Gardentasuna eta posizionamendua

Merkatu-estandar berria

Ingurumeneko jarduerari buruz informatzea eta informazio hori inbertitzaile eta bezeroei ematea gero eta garrantzitsuagoa da enpresentzat, bai Itun Berdearen inguruko lege-betebeharren ondorioz, bai merkatuko borondatezko ekimenetan ingurumenarekiko konpromiso eta gardentasun handiagoa eskatzearen ondorioz.

DRIVER ARAUTZAILE KORPORATIBOAK

Informazio ez-finantzarioa emateari dagokionez, 2022ko abenduan onartu zen [2022/2464 \(EB\) Zuzentarauak, jasangarritasunaren](#) arloko informazio korporatiboari buruzkoak, indarreko araudiarekiko aplikazio-eremua zabaltzen du, emandako informazioa kanpoan egiaztatu beharra ezartzen du, eta xehetasun handiagoz zehazten du enpresek aurkeztu behar duten informazioa. Eragindako enpresek informazioa emateko ezarritako betekizunetan oinarrituta bildu beharko dute informazioa.

[Jasangarritasunaren arloan enpresek arreta egokiz jokatzeari buruzko Zuzentaru Proposamenak \(COM/2022/071\)](#), 2022ko otsailean aurkeztu zenak, 2022/2464 (EB) Zuzentaru osatzen du, jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzkoa, eta betebehar material bat gaineratzen die enpresa batzuei; alegia, arreta egokiz jokatu behar dutela giza eskubideetan eta ingurumenean (balio-katea barne) dauden ondorio kaskarren ondoriozko kanpo-kalteak identifikatzeko, prebenitzeko, arintzeko eta ezagutarazteko. Halaber, 2022/2464 (EB) Zuzentaruak arreta egokiari buruzko zuzentaruaren azken fasea estaltzen du: txostenak prestatzea.



2022/2464 (EB) ZUZENTARUA, **JASANGARRITASUNAREN ARLOKO INFORMAZIO** **KORPORATIBOARI BURUZKOA**

Europako Batzordeak berrikuntzak egiten ditu jasangarritasun-txostenak eta informazio ez-finantzarioari buruzko txostena emateari dagokionez, jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzko zuzentaru berriarekin.

- **Helmena.** Beste enpresa batzuetara zabaltzen da aplikazio-eremua, **enpresa handi guztiak**, merkatu arautuan kotizatzen duten ETEak eta EBn 150 milioi eurotik gorako negozio-bolumena duten Erkidegotik kanpoko enpresak ba.
- **Egiaztapena.** Enpresak **auditoretza independenteen eta ziurtapen-prozesuen** menpe daude.
- **Eman beharreko informazioa.** Enpresek **European Sustainability Reporting Standards (ESRS)** estandarren arabera eman beharko dute informazioa. Aurreikuspenen arabera, Europako Erkidegoak ekintza eskuordetuak ezarriko ditu 2023ko bigarren hiruhilekoan; besteak beste, Europako Kontsulta Taldeak (ingelesez, EFRAG) informazio finantzarioari dagokionez 2022ko azaroan onartu ziren estandarren multzoa. Arau horiek European eman beharreko informazioa bateratzen dute, eta bat datoz beste araudi batzuetako betekizunekin; esaterako, Taxonomiari edo Finantza Jasangarriak Hedatzeari buruzko Erregelamendua.
- **Informazioaren eskuragarritasuna.** **Informazioa digitalki eskuragarri dagoela bermatu** behar da, kudeaketa-txostenen eranskin gisa edo eskuragarritasun publikoko beste bitartekoren baten bidez argitaratuta.
- **Balio-kateko informazioa.** Hiru urteko aldi iragankor batez, nolabaiteko malgutasuna izango dute balio-kateko enpresa batzuek datuak ez edukitzeagatik informazio jakina eman ezin duten enpresek.
- **Epeak.** Enpresek nahitaez aplikatu behar dute, hainbat fasetan:
 - ⇒ 2024ko urtarrilaren 1a, informazio ez-finantzarioa hedatzeari buruzko Zuzentaruaren pean dauden enpresentzat (2025ean aurkeztuko da 2024ko datuei buruzko informazioa);
 - ⇒ 2025eko urtarrilaren 1a, informazio ez-finantzarioa hedatzeari buruzko Zuzentaruaren pean ez dauden enpresa handientzat (2026an aurkeztuko da 2025eko datuei buruzko informazioa).





Estatuan, [Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren 7/2021 Legean](#) ezarritakoari jarraikiz, [errege-dekretu baten proiektu-proposamena garatu da, karbono-aztarna erregistratu eta konpentsatzeari buruzko 163/2014 Errege Dekretua aldatzeko](#). Errege Dekretuaren Proiektuak dio [informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen arloko 11/2018 Legearen](#) eraginpeko enpresek urtero kalkulatu behar dutela karbono-aztarna, eta BEG emisioak murrizteko plan bat prestatu.

2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean betebeharrak hori (2024ko karbono-aztarna dela eta). Karbono-aztarnaren erregistroan izena emateko, enpresa handiek, 1. eta 2. mailako emisioak ez ezik, pixkanaka 3. mailakoak ere jaso beharko dituzte.



AZTARNA ERREGISTRATZEKO ETA KONPENTSATZEKO ERREGE DEKRETUAREN PROIEKTUA

2022ko abenduaren 13an amaitu zen 163/2014 Errege Dekretua aldatzen duen Errege Dekretuaren Proiekturako informazio publikoko epea (163/2014 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzen duena).

Haren arabera, [informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen arloko 11/2018 Legearen](#) eraginpeko enpresek [karbono-aztarna kalkulatu beharko dute 2025etik aurrera, eta murrizketa-plan bat prestatu](#). Lege horren arabera, 250 langile baino gehiago dituzten eta 20 milioi euro baino gehiago aktibo bateratua edo 40 milioi euro baino gehiagoko urteko zenbateko garbia duten enpresei dagokie.

EDaren aldaketak ere ezartzen du [3. mailako emisioen kalkulua pixkanaka sartuko dela enpresa handientzako aztarnaren erregistroan](#), eta borondatezkoa izango dela ETEentzat.





INFORMAZIO KORPORATIBOA EMATEKO ESTANDARRAK

Ingurumen-informazio korporatiboa emateko, enpresek era askotako merkatu-estandarrak dituzte eskuragarri; esaterako, [International Financial Reporting Standard](#) (jasangarritasunari buruzko informazio finantzarioa zabaltzeko), edo [Global Reporting Initiative \(GRI\)](#), ekimenak argitaratutako estandarrak, zeinak 2020an [GRI 306 estandarra argitaratu baitu, hondakinak sortzeari buruzko informazioa emateari buruzkoa.](#)



INTERNATIONAL FINANCIAL REPORTING STANDARD (IFRS)

Jasangarritasunari buruzko informazio finantzarioa hedatzean gardentasuna sustatzea

IFRS estandarrek arau- eta prozedura-multzo bat osatzen dute, eta, beren emaitzen eta diru-sarreraren berri gardentasunez ematea ahalbidetzen diete edozein sektoretako erakundeei. 2021eko azaroan, IFRS Fundazioak International Sustainability Standards Board (ISSB) sortu zuen. Batzorde horrek jasangarritasunaren arloan zabaltzeko zenbait estandar eskaintzen ditu, merkatuei jakinarazteko zer arrisku eta aukera dakartzan jasangarritasunak enpresentzat eta erabakiak hartzen ere laguntzeko.

Bestalde, 2022an, ISSB batzordeak bere gain hartu zuen SASB (Sustainability Accounting Standards Board) arauen gaineko erantzukizuna. [Ingurumeneko, gizarteko eta kudeaketako 77 estandar dira, eta enpresei laguntzen diete inbertitzaileei jakinarazten zeinen jasangarriak diren beren jarduerak.](#) Industriako SASB estandar bakoitzak 6 gai eta 13 metrika ditu batez beste, eta 200 esparru eta ziurtapenekin baino gehiagorekin lerrokatuta daude.



HONDAKINEI BURUZKO GRI 306 ESTANDARRA

Hondakinak sortzeari buruzko informazioa ematea

[Global Reporting Initiative \(GRI\)](#) erakunde independente bat da, eta munduko lehenengo estandarra sortu zuen beren jarduera ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala ebaluatu nahi duten enpresen jasangarritasun-memoriak prestatzeko.

Bere segimendu-adierazleen artean, 308 zenbakikoa hornitzaileen ingurumen-ebaluazioari buruzkoa da, eta 306 zenbakikoa, Hondakinak 2020, 2016an ÒEfluenteak eta hondakinakÓ izenarekin argitaratu zena ordeztzen du. 2022ko urtarrilean jarri zen indarrean estandar hori, eta, mundu-mailan, [erakundeei sortutako hondakinen eta balio-kate osoan dituzten eraginaren ikuspegi integrala ematen laguntzen dien](#) lehenengo araua da. Estandar horren arabera, prebentzio-neurriak, fluxu zirkularrak sustatzeko neurriak eta sortutako hondakinen kantitatearen berri emateko neurriak sartu behar dira jasangarritasun-memorian.

**PRODUKTU-/ZERBITZU-MAILAKO DRIVER ARAUTZAILEAK**

Kontsumitzaileei emandako informazioari dagokionez, nabarmentzekoa da [kontsumitzaileak trantsizio ekologikorako ahalduntzeari buruzko Zuzentarau Proposamena \(COM/2022/143\)](#). Proposamen horrek zaharkitze programatuaren eta greenwashing-aren aurka egiteko neurriak ezartzen ditu. Horren harira, aldaketak egiten ditu [2005/29/EB Zuzentaraun, enpresek kontsumitzaileekiko harremanetan jardunbide komertzial desleialak egiteari buruzkoan](#), eta [2011/83/EB Zuzentaraun, kontsumitzaileen eskubideei buruzkoan](#).

Zuzentarauek dio nahitaez eman behar dela produktuen iraunkortasun bermatuaren eta konpongarritasunaren berri (konpongarritasun-indizea barne), ordezeko piezen eskuragarritasunaren berri, eta konponketa-eskuliburuaren berri; halaber dio debekatuta dagoela iruzurrezko ingurumen-adierazpenak egitea.

2023ko maiatzaren 12an, Europako Parlamentuaren osokoak zuzentarauek proposamen hori onartu zuen, aldeko 544 botoekin, kontrako 18ekin eta 17 abstentzioekin.

Illo beretik, [Ondasunen Kontsumo Jasangarriko Ekimenak](#) ndasunen salerosketari buruzko zuzentarauek aldatzea proposatzen du, eta konpontzeko eskubideari buruzko lege-proposamen bat garatzea (aurreikuspenen arabera, 2023an), konpontzeko aukera mugatzen dituzten edo zaharkitze programatura daramaten jardunbideen aurka borrokatzeko. Haren arabera, konpontzeko benetako eskubideak produktuaren bizi-ziklo osoari heldu beharko dio, eta diseinua, ekoizpen etikoa, estandarizazioa, konpongarritasunari buruzko enpresa eta kontsumitzaileentzako etiketak eta kontratazio publikoa hartu beharko ditu kontuan.


**KONTSUMITZAILEAK TRANTSIZIORAKO
AHALDUNTZEARI BURUZKO ZUZENTARAU-
PROPOSAMENAEKOLOGIKOA**

COM/2022/143

Jardunbide komertzial desleialak buruzko zuzentarauek eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko zuzentarauek aldatzen ditu, eta neurri hauek ezartzen ditu kontsumitzaileak ahalduntzeko:

- Produktuaren ezaugarriak (besteak beste, iraunkortasuna eta konpongarritasuna) berriaz aipatuko dira produktuaren ezaugarri nagusien zerrendan.
- **Konpongarritasun-indizea** adieraziko zaio kontsumitzaileari.
- Bermeen berri eman beharko da, 2 urteko lege-bermeaz harago.
- **Bi jardunbide gehitu dira jardunbide komertzial engainagarri posibleen zerrendan:** produktu batek etorkizunean ingurumenean izango duen eraginari buruzko ingurumen-baieztapenak egitea informazio garbia, objektiboa eta egiaztagarria izan gabe; eta merkaturan jardunbide arrunta den zerbait onura berezi gisa iragartzea.
- **Beste 10 jardunbide komertzial gehitu dira debekatutakoen zerrendan:** ziurtagiri ofizialetan oinarrituta ez dauden etiketak erabiltzea, edukirik ez duten baieztapen generikoak egitea, ingurumen-alderdi bat produktu osoari dagokiola esatea berez zati bati dagokion arren, lege-betebehar hartzen den zerbait alderdi bereizle gisa aurkeztea, produktua ez eguneratzeak haren funtzionamendua kaskar dezakeela ez jakinaraztea, edo iraunkortasunari buruzko iruzurrezko alegazioak egitea.
- Alderatze-tresnak: produktuen jasangarritasuna alderatzen duten enpresak alderatze-metodoari, alderatzen diren produktuei edo hornitzaileei buruzko informazioa ematera behartuta egongo dira, besteak beste.


**KONPONGARRITASUN-
INDIZEA**

[Europako Batzordeak](#)

proiektu bat du martxan

konpongarritasuna

kalifikatzeko puntuazio-sistema bat garatzeko eta, hala badagokio, produktuak eguneratzeko zer aukera dauden ikusteko.



[Espainian](#), Kontsumo Ministerioak **gailu elektriko eta elektronikoetarako (TEE) konpongarritasun-indize baten** garapena iragarri zuen 2021ean. Indize horrek zero eta hamar puntu arteko eskalan sailkatuko ditu, hainbat irizpideren arabera, hala nola desmuntatzeko erraztasuna, ordezeko piezen eskuragarritasuna, edo ordezeko piezen prezioaren eta jatorrizko produktuaren arteko harremana. Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean esaten da **MITECok azterlan espezifikoak egingo dituela produktu zehatzen bizitza baliagarria aztertzeko, zaharkitze goiztiarra saiheste aldera.**

Ekimen honek **Frantzia garatutako konpongarritasun-indizearen** adibideari jarraitzen dio, xahuketaren aurka eta ekonomia zirkularraren alde 2020an onartu zen legearen esparruan. Etiketa horiek 2021eko urtarilaren 1az geroztik daude indarrean, eta tresna elektriko eta elektronikoek 13 motatan ezarri da dagoeneko.



Enpresen kasuan, iraunkortasun- eta konpongarritasun-parametroak hobetzen dira, kontsumitzaileek kontuan hartuko baitute informazio hori erosketa-erabaketan, eta ingurumen-alegazioak babesten dira ziurtapen ofizialen bidez.

Esparru arautzaile horren osagarri gisa, ingurumen-alegazio esplizituak justifikatzeari eta komunikatzeari buruzko zuzentarau-proposamena (Alegazio ekologikoei buruzko zuzentaraia) (COM/2023/166) ("Green claims" izenez ezagunagoa) argitaratu da 2023ko martxoan. Proposamen horretan, neurri osagarriak ezartzen dira produktuak jasagarriagoak bihurtzeko, negozio-eredu zirkularrak sustatzeko eta kontsumitzaileak trantsizio ekologikoari begira gaitzeko. Neurri horiek erakunde komunitarioak Europako Itun Berdearekin duen konpromisoaren parte dira.



INGURUMEN-ALEGAZIO ESPLIZITUEI BURUZKO ZUZENTARAU-PROPOSAMENA ("GREEN CLAIMS")

COM/2023/166

Proposamen berri horren helburu nagusia da enpresek kontsumitzaileentzat borondatez egindako baieztapen esplizituak estaltzea. Baieztapen horiek produktu baten edo saltzailearen beraren alderdi, inpaktu edo errendimendu batekin erlazionatzen dira, eta **"bizi-zikloaren"** ikuspegia hartzen dute, lehengaietatik bizitza baliagarriaren amaieraraino. Alegia, era honetako baieztapenak: **"% 30 plastiko birziklatuz eginda dauden ontziak"**, **"ECO produktua"**, **"CO₂ % 100 konpentsatua"** edo **"karbono-neutaltasuna"**.

Proposamenari jarraikiz, baieztapen horiek oinarritu egin behar dira, eta oinarri hori ex ante egiaztatu behar da. Horretarako, estatu kideak arduratuko dira egiaztapen- eta gauzatze-prozesuak ezartzeaz. Prozesu horiek egiaztatzaile independente eta ziurtatuek gauzatuko dira, ildo hauei jarraikiz:

- Baieztapenak **zabalki aitortutako ebidentzia zientifikoarekin** oinarritu behar da; ebidentzia horrek ingurumen-inpaktu esanguratsuak eta haien arteko konpentsazioak identifikatu behar ditu.
- Produktuak edo erakundeak beste produktu eta erakunde batzuekin alderatzen badira, **alderatze** horiek **bidezkoak izan behar dute, eta informazio eta datu baliokideetan oinarrituta egon behar dute.**
- **Ez da onartuko puntuazio erantsia erabiltzen duen adierazpen edo etiketarik** produktuak zenbait alderditan duen ingurumen-inpaktu orokorrari dagokionez; besteak beste, biodibertsitatean, kliman, ur-kontsumoan, lurzoruan eta abarren, baldin eta Europar Batasunaren arauak hala ezartzen ez badute.
- **Ingurumen-etiketen eskemek irmoak eta fidagarriak izan behar dute, eta haien zabalkundea kontrolatu egin behar da.** Europar Batasun osoan sustatu behar dira eskemak, eta ez da etiketa publiko berririk onartuko, baldin eta Europar Batasunean garatzen ez badira, eta etiketa pribatu berriak daudenek baino ingurumen-asmo handiagoa erakutsi badezakete soilik eta aurretik baimena lortzen badute soilik onartuko dira.
- Ingurumen-etiketek gardenak izan behar dute, hirugarren batek egiaztatu behar ditu, eta aldian-aldian berrikusi behar dira.

Mikroenpresak (10 langile baino gutxiago eta 2 milioi eurotik beherako fakturazioa) proposamen honetako betebeharrak betetzetik kanpo geratuko lirateke, baldin eta arauak bete nahi ez badituzte.



Ingurumen-gardentasunaren arloan, espektatiba handia dago [produktu jasangarrietarako ekodiseinuari buruzko erregelamendu-proposamenak \(COM/2022/142\)](#) ezartzen duen produktu-pasaporte digital bat zabaltzearen inguruan. Pasaporte horrek ingurumen-informazioa integratuko du produktuan bertan, bizi-zikloaren ikuspegiarekin, bezero publiko edo pribatuek erabakiak hartu ahal izan ditzaten, materialen kontsumoa ordezeko edo murrizteko, birziklatu gehiago erabiltzeko, ingurumenaren aldetik egoki erabiltzeko, luzaroago irauteko eta produktuaren eta materialen balioari eusteko, berrerabilera, konponketa eta birziklapena ahalbidetearren.

Produktu-pasaporte digitalaren lehenengo apustua erregistro elektronikoa da, [pila eta bateriei buruzko erregelamendu-proposamenean \(COM/2020/798\)](#) jasoa; erregistro horrek baterien errendimenduari eta iraunkortasunari buruzko informazioa emango du.

Pasaporte digitala izango duten hurrengo sektore eta produktuak produktu elektronikoa eta Ekonomia Zirkularrerako Europako Ekintza Planaren arabera funtsezkoak diren beste balio-kate batzuk dira (esaterako, altzariak, IKTak edo ehunak), baita inpaktu handiko bitarteko produktuak ere (hala nola altzairua, zementua eta kimikoak).

Europako produktu-pasaporte digitala zabaldu ahala, eskualde-mailako ekimenak eta ekimen sektorialak ari dira martxan jartzen; esaterako [Product Circularity Datasheet](#) ekimena, datuen estandarizazioa ahalbidetzeko Luxenburgoko gobernuak garatzen ari dena.



EUROPAKO PRODUKTU-PASAPORTE DIGITALAREN (PPD) GAKOAK

- **Zer da PPD?** Produktu bati buruzko datu espezifikoek multzoa da, eta kasuan kasuko produktuari aplikagarria zaion ekintza eskuordetu batean zehaztutako informazioa biltzen du. Informazio hori digitalki kontsulta daiteke.
- **Zer helburu du?** Balio-katean informaziorik ez galtzea; horretarako, produktuarekin erlazionatutako informazioa prozesatuko da, eta hornikuntza-kateko enpresen agintarien eta kontsumitzaileen artean partekatuko da, hornikuntza-katean barruan eta artean PPDen elkarrengarritasuna bermatuta.
- **Zer motatako informazioa bilduko dute?** Produktuen ingurumen-jasangarritasunarekin, zirkulartasunarekin eta gai kezkarrekin erlazionatutako informazioa.
- **Zer ez da PPD?** Ez da ingurumenaren aldetik produktu bat beste bat baino hobea dela bermatzen duen ekoetiketa bat; hala ere, ekoetiketa batean jasotako premisak frogatzeko beharrezko informazioa izango du, eta produktuak alderatzea ahalbidetuko du.



PRODUCT CIRCULARITY DATASHEET INITIATIVE

Produktu-pasaporte digitalaren estandar-ekimen hau Luxenburgoko Ekonomia Ministerioak jarri zuen martxan 2018an, fabrikatzaile eta plataforma multinazional eta eskualde-mailakoen laguntzarekin, eta industriak eta kontsumitzaileek produktu baten propietate zirkularrei buruzko datu fidagarriak lortzeko duten zailtasunari heltzen dio. Oztopotzat identifikatzen da sekretu komertzialek gardentasuna oztopatzen dutela eta informazio-arauak falta direla; ondorioz, fabrikatzaileek datu-multzo ugari askotariko formatuetan bidali behar izaten dizkiete bezeroei eta produktu-plataformei.

Ekimen honek proposatzen dituen soluzioetako bat da [datuak aurkezteko modu estandarizatu bat garatzea, bakoitzak bere sistemetara egokitu ahal izan ditzan](#) eta beste "arau" burokratiko bat izan ez dadin. [Zirkulartasunari buruzko oinarritzko datuak modu deszentralizatuan eskuragarri egotea](#) lortu nahi du, plataforma edo datu-base zentralizatu bat beharrezkoa izan ez dadin eta alferrikako konfiantza-galera saihesten dadin.

Horren harira, Product Circularity Datasheet (PCDS) jarri da martxan. Datu egiaztagarrien oinarritzko iturri bat da, eta [produktu baten zirkulartasun-maila ezartzeko eta diseinatzean eta fabrikatzean egokitu zitzaion ibilbide zirkularraren berri emateko](#) erabil daiteke. PCDSek formatu estandarizatua eskaintzen du, datu fidagarriekin, eta alderdien puntuazio edo sailkapenik egin gabe.

Gaur egun, ekimena bide-orria balidatzeko fasean dago, eta 12 herrialdeetako 50 enpresa baino gehiago dauzka atxikita, tartean ArcelorMittal.

**TXOSTENA: DIGITAL PRODUCT PASSPORT: THE TICKET TO ACHIEVING A CLIMATE NEUTRAL AND CIRCULAR EUROPEAN ECONOMY?**

Cambridgeko Unibertsitateko Lidergo Jasangarrirako Institutuak eta Wuppertal Institutuak beste txosten bat argitaratu dute agerian jartzeko, produktu-pasaporte digitala (PPD) ondo diseinatuz gero, ekintza klimatikoa ahalbidetu eta EBko zirkulartasuna hobetuko litzatekeela.

Analisia ezagutza komertzialean oinarrituta dago, eta argudiatzen du, produktu-pasaporteen sistema bati esker, industriako alderdi interesdunek, enpresek, agintari publikoek eta kontsumitzaileek hobeto ulertu ahal izango litzuketela produktuan erabilitako materialak eta ingurumenaren duten inpaktua.

Hona hemen txostenaren **alderdi aipagarri** batz:

- **Produktu-mota.** PPDak **bateriak, ehunak, altzariak, elektronika eta eraikuntza-materialak** ekoizten dituzten sektoreetan ezarri ahal izango litzateke, BIMean eta autoetan oinarritutako Material Passports izenekoak bezala (Catena-X). Bereziki, balio handiko produktuak (hala nola automobilgintzaren sektorean erabilitako trakzio-bateria handienak) egokiak dira PPD espezifikotarako, produktu horiek dituzten kalitate handiko material kritikoek eta osagaiek onura zuzenak sortzen baitituzte ingurumenaren aldetik eta ekonomikoki. Bestalde, masan ekoizt daitezkeen produktu txikiotarako eta balio txikiagokoetarako, ziurrenik produktu-sorta edo -serie baterako sortuko dira PPDak. Gaur egun, plan sektorial horiek sortze- eta prototipo-fasean dude.
- **Aplikazio posibleak:**
 - ⇒ **Informazioa emateko betebeharrak.** PPDak esanguratsuak izan litezke industrietarako, hornikuntza-kateak datu digitaletan oinarritutako informazioa emateko dituen betebeharrak betetzeko tresna gisa. Haien bidez, BEG emisioei, bizi-zikloaren ebaluazioei eta gizarte-erantzukizun korporatiboari buruzko informazioa emango du, besteak beste (adibidez, balio-kate osoan 3. mailako emisioekin erlazionatutako informazio xehatua eta eguneratua eman ahal izango lukete).
 - ⇒ **Soluzio zirkularren bideratzaileak.** Bigarren mailako materialen izaeraren eta ezaugarrien berri emateko balioko dute PPDek, eta ekonomia zirkularreko estrategiak babestu ahal izango dituzte; besteak beste, konponketa edo birmanufaktura.
 - ⇒ **Erosketa publikoa.** Kontratazio publiko ekologikorako irizpideak ezartzeko eta ekoetiketen egiaztapen-tresna gisa erabili ahal izango dira PPDak.
- **Hartzailearen araberako informazioa.** Oraindik ez dago argi PPDak informazio desberdina emango duen hartzailearen arabera (kontsumitzailea, enpresa edo administrazio publikoa).
- **Lege-esparrua.** PPDaren hedapena ekodiseinuari buruzko erregelamenduan dago jasota, eta eraikuntza-produktuen erregelamenduan aipatzen da, baina Ehun Jasangarri eta Zirkularren Europako Estrategiarekin ere erlazionatzen da. PPDen inguruan ardazten da ehunen trantsizio digitala eta zirkularra. Gainera, posible da etorkizunean eginkizun erabakigarria izatea **Karbonoagatik mugan egokitze mekanismoak**, beharbada inportatzaileek ordaindu egin beharko baitute produktuaren karbono-aztarnagatik, EBan merkaturatu ahal izateko, eta informazio hori PPDetatik atera ahal izango litzateke. Arreta egokiz jarduteko zuzentarauko betebeharrak betetzeari dagokionez ere aplikatu ahal izango litzateke, PPDari esker eragindako enpresek hornikuntza-kateari buruzko informazio fidagarria kontsultatu ahal izango bailukete.





Balio-katea ingurumen-gardentasuneko betebeharrak betetzen inplikatzeari

Ingurumen-gardentasunarekin erlazionatutako arauetako eta merkatuko eskakizunak direla-eta, enpresek sistematizatu egin behar dute produktuek ingurumenean duten eraginaren eta erakundeak gauzatzen duen jardueraren ebaluazioa, eta bizi-zikloaren ikuspegia txertatu behar dute, balio-kate osoarekin modu egonkorrean elkarlanean arituz. Horretarako, tresna erabilgarri ugari daude merkatuan datuak estandarizatzeko eta kate osoan errazago trukatzeko. Adibidez, enpresei zirkulartasuna neurtzen laguntzen dien tresna bat **Circular Transition Indicators** dira. Haien 3.0 bertsioa jada erabilgarri dago, eta **ISO/CD 59020 araua** oinarritu daiteke, ezarpenerako esparru-estandar gisa.



CIRCULAR TRANSITION INDICATORS (CTI) V4.0

Jasangarritasuna orokortzearekin batera, handitu egiten da errendimendu zirkularra frogatzeko enpresengan egiten den presioa. Trantsizio Zirkularreko adierazleen esparruari esker, enpresek gero eta handiagoa den eskari horri erantzun diezaiokete; hala, sektoreak erraz eta modu independentean neurtu ahal izango du zirkulartasuna, eta lehen mailako baliabideen erabilera eta hondakinen sorrera nola murriztu jakiteko informazioa eskainiko da.

2023ko maiatzean, World Business Council for Sustainable Development-ek (WBCSD) CTI adierazleen 4.0 bertsioa argitaratu du, enpresek zirkulartasuna neurtzeko modu unibertsala eta koherentea izateko zuten beharrari erantzute aldera. 2022an kaleratutako aurreko bertsioan oinarrituta, CTI adierazleen 4.0 bertsioak aipatu beharreko beritasun dakartza:

- **BEG emisioetako inpaktuaren metodologia zabaldua:** produktu berrerabilien/berregokituen eta osagai birmanufakturatuen hornikuntzak 3. mailako emisioen kontabilitatean duen eraginari heltzeko, oinarri biologikoko materialek eta ez berriztagarriek BEG emisioetan duten inpaktua alderatzeko, eta irteera-fluxu zirkularretan karbono-aztarnan dagoen aldea kontuan hartzeko.
- **Naturako inpaktuaren adierazle berria,** lurzorua erabilerako inpaktuan zentratua.

Gainera, CIT adierazleak ebaluatzeko prozesuaren bidez enpresei laguntza eta orientazioa emateko, WBCSD-k, Circular IQ-rekin batera, tresna bat garatu du sarean, eta www.ctitool.com webgunean dago.



EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO ISO ARAUAK

ISO/TC 323 batzorde teknikoa ekonomia zirkularren arloko estandarizazioaz arduratzen da, eta ekonomia zirkularren esparrua eta printzipioak, negozio-ereduei eta balio-kateei buruzko ildoak, zirkulartasuna neurtzeko esparru bat eta ekonomia zirkularrerako emaitzan oinarritutako ikuspegia definitzen ari da.

- ISO/CD 59004 (Ekonomia zirkularra) - Ezartzeko esparrua eta printzipioak
- ISO/CD 59010 (Ekonomia zirkularra) - Negozio-ereduei eta balio-kateei buruzko ildoak
- ISO/CD 59020 (Ekonomia zirkularra) - Zirkulartasuna neurtzeko esparrua
- ISO/CD TR 59031 (Ekonomia zirkularra) - Azterketa-kasuen analisia
- ISO/CD TR 59032.2 (Ekonomia zirkularra) - Negozio-ereduaren ezarpena berrikustea
- ISO/WD 59040.2 (Ekonomia zirkularra) - Produktuaren zirkulartasunari buruzko fitxa teknikoa



Ingurumen-gardentasunari esker, posizionamendua hobe daiteke hornitzaileak ebaluatzeko prozesuetan

Halaber, ingurumen-gardentasuna funtsezkoa da enpresek hornitzaileen ebaluazio-eskemetan duten posizionamendua hobetzen (esaterako [EcoVadis](#), [NQC](#), [CDP](#) edo [B Corp](#)); eskema horiek kontratazio-prozesuetan erabiltzen dituzte kontratazio-prozesuetan.

Sistema horietara egokitzeko eta merkatu-aukerarik ez galtzeko, enpresek **ingurumeneko profila hobetu behar dute, bai erakundearena berarena, bai eskaintzen dituzten produktuen; horretarako, bizi-zikloaren ikuspegia integratu behar dute**, eta ebaluazio-sistema horiek eskatzen duten ingurumen-gardentasunean aurrera egin behar dute.

Halaber, badira beste ekimen eta aliantza batzuk, hala nola [World Benchmarking Alliance \(WBA\)](#), zeinak enpresak baloratzen baitihardute. WBA-k munduan eragin handiena duten 2.000 entitateak kalifikatzen ditu GJHak zer neurritan betetzen dituzten kontuan hartuta, eta zirkulartasuna gehien aplikatzen duten 750 enpresak identifikatzen ditu. 2021ean, ekimenak ebaluazioen helmena zabaldu zuen, eta natura eta biodibertsitatea hartu zituen barnean; 2021eko apirilean, Nature Benchmark metodologia aurkeztu zuen. Kontsulta publikoa egin ondoren, 22 industriarako 1.000 enpresak 2022an eta 2023an izandako jardura neurtzen du metodologia, zenbait alderdiri dagokienez ezarri diren zientzian oinarritutako helburuak betetzen zer aurrerapen izan den ikusteko; hain zuzen ere, BEG emisioei, deforestaziorik ezari, ur-eskasiako egoeran uraren erauzketa eraginkorrari, ekonomia zirkularrari, baliabideen disoziazioari eta arintze-hierarkiako printzipioei dagokienez.

Zer irizpide hartzen dituzten barnean ebaluazio-sistemetako galdetegiak?

INGURUMEN-JARDUNBIDEAK

Karbonoagatik mugan egokitzeko mekanismoak, Ingurumena kudeatzeko sistema (ISO 14001)

Ingurumena kudeatzeko politika

Eraikuntza jasangarriko ziurtapena duten enpresaren instalazioen ehunekoa (LEED, BREEAM...)

URA

Uraren kontsumoa, guztira

Uraren kontsumoan efizientzia sustatzera bideratutako neurriak (txorrota termostatikoak, tenporizadoreak, elektronikoak...)

Uraren berrerabilera sustatzera bideratutako neurriak (adib., euri-urak biltzeko sistemak)

Urarekin erlazioatutako arriskuen ebaluazioa

ENERGIA

Energia berriztagarriaren erabilera

Energia-kontsumoa, guztira

Intentsitate energetikoa

Efizientzia energetikoa handitzera bideratutako neurriak (adib., LEDen erabilera)

LEHENGAIK

Lehengai birziklagarrien/biodegradagarrien portzentajea

Jatorri birziklatuko lehengaien kontsumoa

HONDAKINAK

Hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena

Behar bezala biltzeko seinalaztapena edo prestakuntza

KLIMA-ALDAKETA

1. eta 2. mailetako BEG emisioak

3. mailako BEG emisioak

ISO 14064

Emisioak murriztearekin erlazioatutako ekimenak: Langileentzako mugikortasun-planak, sentsibilizazio-kanpainak...

BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea babestearekin/berreskuratzearekin erlazioatutako ekimenak

Biodibertsitateari buruzko ekimenen baten aldeko konpromiso publikoa



1 Automobilgintzaren sektoreko ebaluazio-eskema (10 eta 49 langile eta Espainian)

2 Automobilgintzaren sektoreko ebaluazioa-eskema

3 Klima-aldaketaren, uraren segurtasunaren eta basoen ebaluazio-eskema (bertsio osoa)

4 Aholkularitza-zerbitzuen ebaluazio-eskema (1.000 langile baino gehiago eta Espainian)



Ekonomia zirkularrerako ekodiseinua

Iraunkortasunetik pasaporte digitalera

Ezinbestekoa da produktu eta zerbitzuak bizi-zikloaren ikuspegitik diseinatzea ekonomiaren zirkulartasuna sustatzeko, eta horrela dago jasota produktu jasangarrien Europako ekimenean; hots, ustez enpresetan eragin handiena izango duen ingurumen-driver arautzaileetako batean.

Ekodiseinuari buruzko zuzentarauaren berrikuspenean, aldaketa esanguratsu batzuk ageri dira, eta [produktu jasangarrietarako ekodiseinuari buruzko erregelamendu-proposamenean \(COM/2022/142\)](#) ari dira biltzen. Aldaketa esanguratsuenak dira energiarekin erlazionatuta ez dauden produktueta zabaltzen dela (adibidez, altzairua edo zementua), eta [produktuen zirkulartasuna hobetzeko irizpideak txertatu direla \(hala nola iraunkortasuna, konpongarritasuna, birmanufaktura, birziklagarritasuna edo material birziklatuaren edukia\)](#); baita produktu-pasaporte digital bat erabiltzen hasiko dela ere.



EKODISEINUARI BURUZKO ERREGLAMENDUAREN PROPOSAMENAREN BERRIKUSPENA

2022/0095/COD

Europako Parlamentuak Europako Batzordearen testua berrikusi zuen 2022ko abenduaren 6an. Berrikuspen horrek erregelamenduan jasotako alderdiak zabaltzea proposatzen du, produktuen [zaharkitze programatua](#) eta gizarte-jasangarritasuna estaltzeko, [baita balio-katean arreta egokiz jokatzearen alderdiak ere](#). Gainera, proposatzen da 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzeko eta materialen eta kontsumoaren azterna globala murrizteko EBren helburuak kontuan hartzea diseinu ekologikoko betekizunak prestatzeko orduan. Aipatzekoa da industriak autorregulazioko neurriak ezartzeko aukera ezabatzea proposatu dela.

Diseinu ekologikoari eta etiketa energetikoei buruzko 2024-2027 aldirako lan-planari buruz dio [lehentasuna eman beharko litzaiekeela produktu hauei: burdina, altzairua, zementua, aluminioa, ehunak, altzariak \(lastairak barne\), pneumatikoak, garbigarriak, pinturak, lubrifikatzaileak, produktu kimikoak, energiarekin erlazionatutako produktuak \(haien aplikazio-neurriak berrikusi edo berriro zehaztu behar dira\), eta IKT produktuak.](#)



PRODUKTU JASANGARRIETARAKO EKODISEINUARI BURUZKO ERREGLAMENDU BERRIAREN PROPOSAMENA

COM/2022/142

Diseinu ekologikoko betekizunei buruzko erregelamendu berriaren proposamena 2022ko martxoaren 30ean argitaratu zen, eta produktu-talde espezifikoetarako ekodiseinuko betekizunak ezartzeko esparru bat sortzen du haien zirkulartasuna nabarmen hobetzeko. Erregelamendu berria Europako merkatuan jarritako edozein produkturi aplikatu ahal izango zaio, zenbait salbuespenekin (esaterako, elikagaia eta pentsuak), eta hau dio:

- Ekodiseinuaren betekizunak: iraunkortasuna, berrerabilgarritasuna, konpongarritasuna, efizientzia energetikoa, eduki birziklatua, birmanufaktura, birziklapena, gaien zirkulartasuna, ingurumen-azterna (ekintza eskuordetu aplikagarriaren arabera) eta karbono-azterna.
- [Produktu-pasaporte digitalarekin erlazionatutako informazio-betekizunak](#): bizitza baliagarriaren amaieran produktua erabiltzeko, mantentzeko, konpontzeko edo ezabatzeko moduari eta gai kezkarrei buruzko kontsumitzaileentzako eta tratamendu-instalazioetarako informazioarekin.
- Saldu ez diren eta berrerabilerarako, birfabrikaziorako, birziklapenerako edo ezabapenerako baztertu diren produktuen berri emateko betebeharra.
- [Saldu ez diren eta ingurumen-inpaktu esanguratsuak dituzten kontsumo-produktuak suntsitzeko debekua.](#)
- Ekitaldi eskuordetuen bidez [erosketa publiko berdeko prozesuetan ekodiseinuko betekizunak](#) definitzea, zehaztapen teknikoak eta hautapen-irizpideak barne.
- Merkatuaren zaintza areagotzea. Estatu kideek bi urtez behingo planak eduki beharko dituzte lehentasunezko produktuei/betekizunei buruz eta [ekodiseinuko betekizunen betetze-maila egiaztatzeko egin beharreko kontrol-kopuruari buruz](#) (Europako Batzordeak gutxieneko kontrol-kopurua eskatu ahal izango du). Ondorioz, hornikuntza-kateko eragileek beharrezko informazioa eman beharko diete fabrikatzaileei eta agintari nazionalai.

Erregelamendua hedatzeko, ekintza eskuordetuak garatuko dira produktu-kategoria desberdinetarako. Ekintza hauek errendimendu- eta informazio-betekizunak bilduko dituzte, produktu-pasaporte digitaletako edukia barne. 2030erako 30 ekintza eskuordetu hartzea ezartzen da; lehenengo 18ak 2024 eta 2027 bitartean, eta gainerako hamabiak 2028 eta 2030 bitartean.



2023ko maiatzaren 15ean, Europako Batzordeak iritzia eman du **produktu jasagarrietarako diseinu ekologikoko betekizunak finkatzeko esparru bat ezartzen duen erregelamenduaren proposamenari buruz**. Ikuspegi orokorrak gutxienez 18 hilabeteko trantsizio-aldia ezartzen du diseinu ekologikoko betekizunak ezartzen dituen ekintza eskuordetua indarrean jartzen denetik, hura aplikatzen hasi ahal izateko, operadore ekonomikoek betekizun berrietara egokitzeko denbora izan dezaten. Halaber, estatu kideek bi urte dituzte egokitzeko eta beharrezko neurri nazional egokiak hartzeko, merkatuaren zaintzarekin eta isunekin erlazionatutakoak barne. Ehunak, oinetakoak eta jantziak suntsitzeko debeku zuzena ere ezartzen du, baina lau urteko salbuespena egiten die enpresa ertainei, eta salbuespen orokorra ere bai enpresa txikiei eta mikroenpresei.



TXOSTENA - ECODESIGN FOR SUSTAINABLE PRODUCTS REGULATION - PRELIMINARY STUDY ON NEW PRODUCT PRIORITIES (JRC)

Produktu jasagarrietarako diseinu ekologikoko etorkizuneko erregelamenduaren esparruan, diseinu ekologikoko betekizunak bi mailatan ezar daitezke:

- **Produktu espezifikoaren kategorien arabera irizpideen** bidez, haien bizi-ziklo osoa barnean hartuta.
- **"Neurri horizontal"** izenekoaren bidez; hots, ezaugarri komunak partekatzen dituzten produktu-taldeei aplikagarriak zaizkien zeharkako neurriak.

Europako Batzordearen Joint Research Centre-k (JRC) egindako txosten honek produktuen eta neurri horizontalen talde batzuk iradoki nahi ditu, erregelamendu berria indarrean jartzean betekizun berriak aplikatzen hasteko.

Aztertutako 34 produktu-taldez osatutako hasierako zerrendatik, **lehenasunezko 19 jarduketa-produktu** proposatzen dira (**azken erabilerako 12 produktutan eta bitarteko 7 produktutan** oinarrituta).

Haiek hautatzeko, **hamar inpaktu-kategoriatarako** ingurumen-garrantziko irizpideak hartu dira kontuan. Produktu-kategoria horiek EBren helburu klimatiko, ingurumeneko eta energetiko nagusiei heltzen diete: uraren gainera efektuak; airearen gainera efektuak; lurzorua gainera efektuak; biodibertsitatearen gainera efektuak; hondakinen sorrera eta kudeaketa; klima-aldaketa; bizi-zikloko energia-kontsumoa; giza toxikotasuna; materialen efizientzia; eta bizitza baliagarriaren luzapena.

Ecodesign for Sustainable Products Regulation - Proposal for new **end-use** products

	WATER	AIR	SOIL	BIODIVERSITY	WASTE	CLIMATE CHANGE	ENERGY USE	HUMAN TOXICITY	MATERIAL EFFICIENCY	LIFETIME EXTENSION	STRATEGIC AUTONOMY
Score 43 TEXTILES and FOOTWEAR	5	2	4	4	5	5	5	3	5	5	1
Score 30 FURNITURE	1	3	3	3	4	3	3	2	3	5	1
Score 30 CERAMICS PRODUCTS	3	3	3	3	3	4	4	1	3	3	1
Score 30 TYRES	3	4	3	3	3	3	3	2	3	3	3
Score 28 DETERGENTS	4	2	1	4	3	3	3	2	3	3	1
Score 26 BED MATTRESSES	1	3	1	2	5	3	3	2	3	3	2
Score 24 LUBRICANTS	2	2	2	2	2	3	3	2	3	3	2
Score 24 PAINTS	3	3	2	3	3	2	2	2	3	1	3
Score 23 COSMETICS	4	2	1	4	3	2	1	2	3	1	1
Score 22 TOYS	1	1	1	1	3	2	2	3	3	5	1
Score 21 FISHING GEARS	4	1	1	4	3	2	1	1	3	1	1
Score 18 ABSORBENT HYGIENE PRODUCTS	2	1	2	2	4	2	2	1	1	1	1

Ecodesign for Sustainable Products Regulation - Proposal for new **intermediate** products

	WATER	AIR	SOIL	BIODIVERSITY	WASTE	CLIMATE CHANGE	ENERGY USE	HUMAN TOXICITY	STRATEGIC AUTONOMY
Score 31 IRON & STEEL	5	5	2	2	4	5	5	3	5
Score 27 NON-FERROUS METAL PRODUCTS	3	2	3	2	5	4	5	3	4
Score 26 ALUMINIUM	1	4	4	3	4	4	4	2	3
Score 25 CHEMICALS	3	3	3	3	3	4	4	2	5
Score 23 PLASTICS	3	3	2	2	3	4	4	2	3
Score 22 PULP & PAPER	3	2	3	3	2	4	4	1	2
Score 19 GLASS	3	2	2	3	1	3	4	1	2



Ekonomia zirkularreko irizpideak produktueta sartzeari eta produktu-pasaporte digitalak zabaltzeari dagokienez, ekodiseinuari buruzko erregelamenduarekin oso erlazionatuta dagoen beste ekimen bat [pila eta bateriei buruzko erregelamendu-proposamena \(COM/2020/798\)](#) da, Kontseiluak eta Parlamentuak onartzeke dagoena.



PILA ETA BATERIEI ETA HAIEN HONDAKINEI BURUZKO ERREGELAMENDU- PROPOSAMENA

COM/2020/ 798

2022ko martxoan adostutako testuan, zenbait aldaketa proposatu dira hasierako proposamenari dagokionez; besteak beste:

- **Erregelamenduaren helmena zabaltzea:** automobilgintzako bateriez eta bateria industrialez gain, ibilgailu elektrikoen bateria guztiak sartzen dira, haien ahalmena edozein dela ere, baita garraibide arinen bateriak ere.
- Jasangarritasun- eta etiketatze-betekizunez gain, berariaz aipatzen dira **balio-katean arreta egokiz jokatzeko betekizunak** lehengaietarako, gai kimikoetarako eta bateria eta piletan erabilitako bigarren mailako materialetarako, eta klima-aldaketari, biodibertsitateari eta beste alderdi batzuei heltzen zaie.
- Bestalde esaten da baterien pasaporteak, **iraunkortasunari eta errendimenduari buruzko informazioaz** gain, osasun-egoerari eta aurreikusitako **bizitza baliagarriari** buruzko informazioa izan behar duela.
- Karbono-aztarnari buruzko informazioari dagokionez, beharrezkoa izango da **erabilitako lehengaien berri ematea**, eduki berriztagarriaren proportzioa barne.
- Erregelamenduan jasotako lehengaiak dagokienez, **kobrea, burdina eta bauxita gehitzen dira.**





Eraikuntza zirkularra

Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, aipatzekoa da **eraikuntza-produktuei buruzko erregelamendu berriaren proposamena (COM/2022/144)** (CPR, ingelesezko siglen arabera); proposamen horrek ekodiseinuari buruzko erregelamendu berriarekin bat etorri nahi du. Horren harira, segurtasunarekin eta funtzionaltasunarekin erlazionatutako alderdietan esku hartzeaz gain, CPR erregelamenduak eraikuntza-produktuetarako diseinu ekologikoko betekizunak ezarriko ditu (energiarekin erlazionatuta dauden produktuetarako izan ezik, zeinak ekodiseinuari buruzko erregelamenduan jasotzen baitira). Gainera, aurreikuspenen arabera, CPR berriak positiboki lagunduko du **eraikuntza industrializatu jasangarria sustatzen**, eta sendotasun eta segurtasun handiagoak emango dizkie sektoreko balio-kateei.

Halaber, CPR erregelamendua bat dator ekodiseinuari buruzko erregelamendu berriarekin, **eraikuntza-produktuetarako pasaporte digitala** garatzeari dagokionez, eta ekintza eskuordetua hartu ahal izango da eraikuntza-produktuen Europako datu-base edo sistema bat ezartzeko pasaporte digitalean oinarrituta.



ERAIKUNTZA-PRODUKTUEI BURUZKO ERREGLAMENDU-PROPOSAMENA (CPR)


COM/2022/144

Eraikuntza-produktuei buruzko erregelamendu berriaren proposamenak (CPR, ingelesezko siglen arabera) kontuan hartu beharreko jasangarritasun- eta zirkulartasun-irizpideak zabaltzen ditu, **material birziklagarriei eta bigarren mailako materialei lehentasunez emanez**, eta **konponketari**, gutxieneko eduki birziklatuari eta ingurumen-jasangarritasuneko alderdiekin zerikusia duten beste muga-balio batzuei buruzko informazioa sartzeko betebeharrak biltzen ditu.

Erregelamenduak dio, eraikuntza-produktuen jasangarritasunarekin erlazionatutako ezaugarriak adierazteko, prestazio-adierazpenak eta adostasun-adierazpenak erabiliko direla (oro har beharrezkoak dira produktuek EBren betekizunak betetzen dituztela frogatzeko). **Betebehar gisa ezartzen da produktuaren dokumentazio teknikoan ingurumen-jasangarritasunaren nahitaezko edo aukerako kalkulua jasotzea**; jasangarritasuna zehaztaperen tekniko harmonizatuen arabera ebaluatzen da (salbuespen dira produktu erabiliak, birmanufakturatutako edo sobera geratutakoak). Horrek guztiak produktuen bizi-ziklo osoko ingurumen-alderdiak ezagutzera eramango du sektorea; horretarako, informazioa bildu beharko du, eta balio-katearekin elkarlanean jardun, ingurumen-informazioko fluxua ziurtatzeko. Frantzia, aurrea hartu diote betebehar hori, **RE2020** erregelamenduaren bidez (*ikus hurrengo orrialdeko irudia*).

CPR erregelamenduak EBko eraikuntza-produktuen datu-base edo sistema bat ezarri nahi du, ahal den neurrian produktu-pasaporte digitalean oinarrituta. Fabrikatzaileek definitutako datuak kargatuko dituzte, eta operadore ekonomikoek berariaz dagozkien gordetako datuak kontsultatu ahal izango dituzte. Produktuen datu-basean, fabrikatzaileek erabilera- eta konponketa-argibideak jarriko dituzte erabilgarri, baita produktuak birmanufakturatze edo birziklatzeko moduari buruzko gidak ere.

Digitalizazioari dagokionez, CPR berriaren proposamenak ahalik eta gehien aprobetxatzen du digitalizazioaren ahalmena, administrazio-kargak arintzeko. Horrenbestez, proposamen berriaren arabera, etorkizunean, informazio eta dokumentazio guztia digitalki prozesatu ahal izango da (esaterako, produktu-pasaporte digitalak), eta informazio-sistema batean gordeta, partekatuta eta eskuragarri egongo dira. Horri esker, CPR erregelamendurekin erlazionatutako datuak eraikinen Liburu Digitalean gordeko dira, eta beste lege-ekintza batzuetarako behar diren kalkuluak egiteko erabiliko dira (adibidez, eraikinen efizientzia energetikoari buruzko zuzentaraua).





FRANTZIAKO RE2020 ERREGLAMENDUA

Réglementation Environnementale 2020 (RE2020) erregelamendu frantses berriak aurreko RT2012 ordeztzen du. Asmo handiagokoa da, eraikuntzaren eta etxebizitzaren sektoreari aplikatutako jasangarritasunaren ikuspegitik, gai hauekin erlazionatutako beste atal batzuk baititu; besteak beste, **eraikin berrien karbono-aztarna eta horrek efizientzia energetikoan dituen efektuak**.

Araudi honen arabera, proiektugile frantsesek bizitegi-, hezkuntza- eta bulego-erabilerarako eraikinen bizi-zikloari buruzko txosten tekniko bat aurkeztu behar dute herrialde osoan 2022tik aurrera. Metodologia berri bat aplikatu da bizi-zikloaren analisian oinarritua. **Metodologia horretan, eraikin batek bere bizitza osoan isurtzen dituen berotegi-efektuko gas-emisio guztiak hartzen dira kontuan**, eraikitzen denetik eraisten den arte. Bizi-zikloaren analisiak gatazkak sortu ditu eragina jasango duten materialen industriekin; industria horiek kritikatu dute zurezko eta jatorri biologikoko materialei egiten zaiela mesede.

Zenbait lege-testuk RE2020 erregelamenduaren eskakizunak zehazten dituzte, eta CCH frantsesa berrantolatzen dute (Code de la construction et de l'habitation), Espainiako Eraikintzaren Kode Teknikoaren baliokidea dena. Bestalde, dekretu batek (**arrêté du 4 août 2021**) eraikinen ingurumen-inpaktua kalkulatzeko metodoa xehatzen du, eta arau espezifiko bat integratzen du **berrerabileratik datozen osagaiak erabiltzeari** lotuta, inpakturik ez dutela kontuan hartuz; horrekin espero da izugarri sustatzea osagai berrerabilien erabilera.

Halaber, RE2020 erregelamenduak beste alderdi esanguratsu batzuk ezartzen ditu eraikuntzaren sektorerako:

- Eraikin berrien behar bioklimatikoaren adierazlea % 30 murriztea; neguan eta udan, desberdina da.
- Proiektuaren lehen mailako energia tradizionalaren kontsumoa murriztea (hozteko beharrak barne); ezin izango dituzte atalase batzuk gainditu.
- Energia ez-berriztagarria erabiltzeko gehieneko atalasea sartzea.

Irizpide zirkularrak txertatzen eta ingurumenari buruzko informazioa ematen jarraitzeko, eraikuntzaren sektoreko enpresek era askotako tresnak erabili ahal izango dituzte; besteak beste, **Level(s)**, ingurune eraikiaren ingurumen-ebaluaziorako Europako esparrua, edo **Madaster**, eraikuntza-materialen pasaporteak garatzeko lan egiten duena.



LEVEL(S): INGURUNE ERAIKIAREN EUROPAKO INGURUMEN- EBALUAZIOAREN ESPARRUA

LIFE Level(s) proiektuak Europako eraikin jasangarrien balioa aitortzen du, Level(s) tresnaren bidez zehaztutako adierazleak are gehiago erabilia eta haiekiko are gehiago kontzientziatuta. Tresnak hizkuntza komun bat eskaintzen du, balio-kateko eragileek eraikinen bizi-zikloaren ingurumen-errendimenduari hel diezaioten:



2022an, berrikuntza batzuk egin zaizkio tresnari, erabilera errazteko. Berrikuntza horiek interesgarriak izan daitezke proiektuen jasangarritasun- eta zirkulartasun-irizpideak aplikatzeko eta baldintza berberetan ebaluatzeko:

- **Level(s) adierazleak erosceta publikoko prozesuetan txertatzeko gida.** Gida horren bidez, Level(s) esparruko adierazleak errazago txertatuko dira kontratazio publikoko prozesuetan.
- **Online prestakuntza-materialen multzoa: ikastaro elektronikoa.** Level(s) adierazleen ikuspegi orokor xehatua eskaintzeko eta erabiltzaileei lan-ingurunean erabiltzen has daitezen laguntzeko pentsatua, eta **Kalkulu- eta ebaluazio-tresna**, Level(s) adierazleak ezagutzen dituztenentzat pentsatua, jasangarritasunaren errendimendu-ebaluazioak errazago egiteko. Gainera, azken etapa gisa, proiektua Level(s) esparruko adierazleei buruzko prestakuntza-ikastaroak egiten ari da Europa osoan.
- **Erabilera-eskuliburu eta tresna berriak** adierazle hauetarako: 1.1 (efizientzia energetikoa erabilera-etapan), 2.1 (materialen erosceta) eta 2.4 (dekonstrukzioaren diseinua).




MADASTER

Madaster online plataforma bat da, eta ondasun higiezin eta azpiegituren eraikuntza zirkularra eta materialen kudeaketa ahalbidetzen du (gaur egun, aktibo dago Herbehereetan, Suitzan, Alemanian, Norvegian, Belgikan eta Danimarkan). 2017an sortu zen plataforma, eta, 2018an, finantzaketa jaso zuen Horizon 2020 programaren bidez. Hondakinak ezabatzea du helburu, eta ingurune eraikiko material bakoitzari nortasun dokumentatua eta erregistratua ematen dio, "hondakinak nortasunik gabeko materialak direla" dioen printzipioan oinarrituta.

Plataforman erregistratuta eta eskatutako datuak kargatuta, informazio hau lor daiteke:

- **Materialen pasaporteak.** Madaster erabiltzean, eraikin edo objektu horretarako materialen pasaporte eskusiboa sortzen da automatikoki. Pasaporte horrek zehatz-mehatz erakusten du beti zer material eta produktu erabili diren, zer inpaktu duten zirkulartasunean eta ingurumenean, eta zer hondar-balio izan dezaketen. Pasaporte automatikoki sortzeko, nahikoa da BIM edo Excel dokumentua kargatzea. Aipatzekoa da **Europako Batzordeak garatuko duen produktu-pasaporte digitala hein handi batean Madaster-en azpiegitura digitalean eta esperientzian oinarritzen dela.**
- **Madaster zirkulartasun-indizea.** Materialen balio zirkularra eta objektuen barruan nola aplikatzen diren erakusten du, eta osagai eta produktu guztien desmuntatze-maila hartzen du kontuan. Horrela, **zirkulartasun-indizea** osatzen du, zeinak objektu jakin baten izaera zirkularra adierazten baitu. Gainera, zirkulartasuna handitzen jarraitzeko behar diren datuak eta ezagutzak eskaintzen ditu.
- **CO₂ kantitatea jakitea.** Objektu batek zenbat CO₂ edo karbono inkorporatu duen erakusten du Madaster-ek. Gai toxikoen presentzia ere erregistratzen da. Informazio hori egunera daiteke, automatikoki, baldin eta objektuan aldaketak gertatzen badira; esaterako, berritzen direnean.
- **Datu publikoen erregistroa.** Erregistro publiko gisa ere erabil daiteke Madaster. Kasu horretan, plataformak eremu jakin bati buruz eskuragarri dagoen informazio guztia berreskuratzen du, hala nola erabiltzaileak zehaztutako eremu batean erabili diren material-motak eta -kantitateak. Erabiltzaileek erabakitzen dute beren datuak erregistro publikoan gehitu nahi dituzten ala ez.
- **Biki digitala.** Objektuaren egituraren profil osoa sortzea ahalbidetzen du.
- **Eraispena.** Eraispenerako kontsulta-tresna gisa ere erabil daiteke.





Bigarren mailako lehengaiak eta hondakinen kudeaketa

Hornikuntzako segurtasuna zirkulartasunetik abiatuta hobetzen

Osagai eta lehengai batzuen eskasiak gaur egun eragiten dituen hornikuntza-arazoak, hornitzaileen atzerapenak eta deslokalizazioa edo prezioen hegakortasuna arrisku larrian jartzen ari dira enpresa askoren produktibitatea.


Lehengaien kontsumoa murrizteko ikuspegitik, ekonomia zirkularrak lehengaien egungo krisia eta hark enpresen produktibitatean duen eragin negatiboa arintzen laguntzen du; hornidurarik gabe geratzeko arriskua eta inportazioekiko menpekotasuna txikitzen du, eta lehiakortasuna hobetzen.

Erakunde legegileek badute arazoaren berri, zeina izugarri areagotu baita Ukrainako gatazkaren ondorioz; hori dela eta, driver arautzaile berriak garatzen ari dira erronka horiei aurre egiteko.

Europako berritasun esanguratsuen **funtsezko lehengaiak** **buruzko Europako lege**-proposamenaren aurkezpena izan da, zeinak lehengaiak segurtasunez eta modu jasangarrian eskuratzea baitu helburu. Legearen helburua da **hornidura ez egotea** **Batasunaren parte ez diren herrialdeetatik inportatutako lehengai kritikoak** menpe.

Gaineratu behar da lehengai kritiko asko dituzten produktuetan zerbait egitea proposatzen ari direla, esaterako, ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistema kolektiboen bidez.

Bestalde, **bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko araudia berrikustean**, lehengai kritikoekin erlazioatutako neurriak ere sartuko dira, birziklapen-helburuen bidez. Gainera, ibilgailu berrietan material birziklatua erabiltzeko betebeharra biltzen du, seguru asko **% 25 eta 35 bitartean gutxienez bigarren mailako plastikoa, 2025erako, ibilgailu berrietan**, eta altzairua eta aluminioa ere hartuko ditu barnean ziurrenik. Horrek estutasunean jarriko du automobilgintzaren sektorea, enpresetako askori bezeroek eskatzen baitiete material horiek legeria berriaren arabera sartzeko, eta, kasu batzuetan, portzentaje handiagoetan, asmo handiagoa etorkizuneko murriztapen posiblei aurrea hartuz.



FUNTSEZKO LEHENGAIEEN EUROPAKO LEGEA

2022ko irailean Bruselan egin zen Europar Batasunaren egoerari buruzko eztabaidan emandako hitzaldian iragarri zuen legea Ursula Von Der Leyenek, baina, azkenean, 2023ko martxoan aurkeztu zen. Legearen helburua da **garrantzi estrategikoko lehengai kritikoak identifikatzeko irizpideak** ezartzea eta berrikuntza eta ordezkapena ahalbidetzea.

Legeak helburu hauek zehazten ditu 2030erako, EBren hornidura dibertsifikatzeko:

- EBren urteko kontsumoaren % 10 gutxienez **erauzketarako**,
- EBren urteko kontsumoaren % 40 gutxienez **prozesamendurako**,
- EBren urteko kontsumoaren % 15 gutxienez **birziklapenerako**,
- Batasunak **edozein eraldaketa-fasetan lehengai estrategiko bakoitzetik** urtean kontsumitzen duenaren % 65 gehienez, hirugarren herrialde bakar batetik ekarria bada.




LEHENGAIK ETA BIGARREN MAILAKO LEHENGAIK, ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

Europar Batasunak trantsizio energetiko eta digitalerako eta espazio- eta defentsa-agendarako ezarri dituen asmo handiko helburuak erdiets ditzan, **etengabe izan behar ditu eskura lehengai kritikoak** eta haiek dituzten produktu asko.

JRCren azterlan horrek balio-kate osoen analisi sistematikoa eta xehatua egiten du **bost sektore estrategikotan (energia berriztagarria, elektromugikortasuna, industria, digitala eta aeroespaziala/defentsa) funtsezko 15 teknologiatarako.**

Azterlanak hornikuntza-katearen menpekotasunak ebaluatzen ditu, eta EBN, beste eskualde ekonomiko batzuetan eta munduan 2050era bitarteko eskaria iragartzen du. EBren oraingo eta etorkizuneko behar eta ahultasun materialak ere ebaluatzen ditu. Horren harira, oinarri prospektibo bat eskaintzen du funtsezko teknologia eta aplikazioetarako **estrategikoak diren lehengaiak** identifikatzen laguntzeko, botila-lepoak identifikatzeko, eta hornikuntza-kateetako zer segmentu indartu behar diren eta nola adierazteko. Azterlan honek ebidentzia zientifikoa ematen du lehengai kritikoei buruzko legea babesteko.



Supply Risk	Material	e-mobility			renewable energy			energy-intensive industry		ICT			aerospace&defence			
		Li-ion batteries	Fuel cells	Traction motors	Electrolyzers	Wind turbines	Solar photovoltaics	Heat pumps	H2, O2 & electric arc furnaces	Data transmission networks	Data storage and servers	Smartphones and laptops	Additive manufacturing	Robotics	Drones	Space launchers & satellites
5.6	Dysprosium															
4.9	Terbium															
4.8	Gallium															
4.1	Magnesium															
4.0	Cerium															
3.9	Iridium															
3.8	Boron															
3.8	Ruthenium															
3.6	Neodymium															
3.5	Samarium															
3.3	Gadolinium															
3.2	Praseodymium															
2.4	Rhodium															
2.1	Platinum															
1.9	Lithium															
1.9	Bismuth															
1.8	Germanium															
1.8	Natural graphite															
1.7	Cobalt															
1.6	Titanium metal															
1.5	Palladium															
1.4	Silicon metal															
1.2	Manganese															
1.2	Tungsten															
0.5	Nickel															
0.1	Copper															

Funtsezko lehengaien zerrenda eta sektore industrialetako aplikazioa



Bestalde, 2023ko apirilean, Europar Batasunaren Kontseiluak 2023/956 (EB) Erregelamendua onartu zuen; haren bidez, [Karbonoagatik mugan doitzeko mekanismo](#) bat ezartzen da, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera sartzen diren produktuen karbono-aztarna zergapetzeko. Mekanismoa 2026ra arte egongo da aldi iragankorrean, eta [lehentasunezko sektore batzuk ezartzen ditu tasa horiek aplikatzeko](#); besteak beste, [burdina, altzairua, aluminioa, zementua, ongarriak, hidrogenoa eta elektrizitatea](#).

Hornikuntza-krisi globalak eta estrategia zirkularrik ezak are eragin handiagoa izan dezakete lehengaien hornitzaile garrantzitsurik ez duten lurraldeetan. Euskadiren kasuan, arazo horrek plastikoei eragiten die, besteak beste, ia ez baitago eskaintzarik; aldiz, hondakin ugari sortzen dira, nagusiki erabiltzen ez diren ibilgailuetatik etorriak, eta ia ez du baliorik.

Gaur egun, ez dago [bigarren mailako lehengaietarako merkatu global bateraturik](#), eta enpresetan eragin handia izaten ari dira balorizazio-prozesuen espezifikotasun txikia eta normalizazio falta, berreskuratutako korronteen kalitatea bermatzeko.

Arazo horiei aurre egiteko, gaur egun kalitate-estandarrak garatzen ari dira material trazagarrien fluxuen merkatu indartsu eta sendoa sustatzeko. Horren adibide bat [ISO/CD 59014 araua da \(Bigarren mailako materialak – Jasangarritasunaren printzipioa eta trazagarritasun-betekizunak\)](#). Arau horren bidez, esparru bat eskaini nahi zaie operadore ekonomikoiei, bigarren mailako materialak modu jasangarrian kudeatzeko eta mota guztietako hondakin-korronteen bigarren mailako materialak berreskuratzeke. Esparru hori betekizun batzuetan oinarrituta ezartzen da, eta betekizun horiek bigarren mailako materialen balio-katean politikak eta prozedurak garatzea dakarte. Esparru horri esker, jasangarritasun-irizpideen arabera berreskuratutako materialen trazabilitate sinetsgarria berma dezakete produktuen fabrikatzaileek, materialen ekoizleek eta bigarren mailako materialen beste erosle batzuek. Gaur egun, etorkizuneko arau hori garapen-bidean dago.


Bestalde, enpresa-aliantzak eta ekimenek (besteak beste [Lehengaien Europako Aliantza](#) edo [Critical Raw Materials Alliance](#)) aurrerapauso bat dakarte merkatuan, lehengai kritikoek garrantzia babesteari eta barne-hornikuntza indartzeari dagokienez.



KARBONOAGATIK MUGAN DOITZEKO MEKANISMOAREN TASA BERRIAK EUSKADIKO ALTZAIRUA ETA ALUMINIOA INPORTATZEARI ERAGITEN DIO

Europar Batasunaren Karbonoagatik Mugan Doitzeko Mekanismoaren tasa europar berriak [berdindu egingo ditu inportatutako produktuen karbono-prezioa eta prezio nazionalak](#), eta, haren ondorioz, nabarmen egin du gora [material birziklatu gehiago duen altzairu- eta aluminio-eskaria](#) metalaren euskal industrian.

Gaur egun, euskal industrian kontsumitzen den altzairuaren % 75 eta aluminioaren % 23 baino gehiago jatorri birziklatukoa da; hortaz, ingurumen-aztarna % 30 murrizten da altzairuaren kasuan, eta % 7 aluminioan, material birjinarri dagokionez.






Hondakin gutxiago sortzeko soluzio zirkularrak

Hondakinei dagokienez, lege-betekizun berriek soluzio zirkularrak bilatzea sustatzen dute. [Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Espainiako 7/2022 Legeak](#) zergak ezartzen dizkie errausketari eta hondakinak hondakindegira eramateari. Ondorioz, soluzioak bilatu behar dira materialak birziklatzeko eta jatorrian zaborra bereizteko prozesuak optimizatzeko. Enpresek bereizketa hobetu beharko dute, berreskuratzeko teknika berriak garatu, azpiproduktuak aprobetxatu, eta harreman komertzialak ezarri hondakin horiek merkatura ateratzeko. Hori lortzeko, funtsezkoa izango da balio handiko aplikazioak dituzten lehengai kritikoak berreskuratzea.

Bestalde, [Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030erako Planak isuri-kanon bat ezartzen du. Kanon hori 2024an jarriko da indarrean](#), eta pixkanaka igoko da; horrez gain, debekatuta egongo da eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta altzairutegiko zepak hondakindegira eramatea. Gainera, funtsezko beste neurri batzuk ere badakartza; esaterako, [kanon bat ezartzea agregakinak erauzteari](#), CE markak sustatzea eraikuntza-material batzuetan (esaterako, hormigoian), eta 2030era bitartean 10 dekretu berri ere kaleratzea, bigarren mailako materialei erabilera berriak emateko.

Illo horretatik, oso garrantzitsua izango da [eraikuntza- eta eraispén-hondakinei buruzko dekretu-proiektua](#). Hona hemen arau honen helburuetako batzuk: material birziklatuen preskripzioa eta erabilera indartzea, hondakinen eta material balorizatu eratorrien kalitatea ziurtatzea, eta EAEko instalazio baimenduetatik datozen [eraikuntza- eta eraispén-hondakinen bigarren mailako agregakinei hondakin-izaeraren amaiera emateko](#) baldintza orokorrak ezartzea; horrek, gainera, erabilera-aukera berriak eta lotutako agertokiak sortuko ditu, besteak beste. Era berean, elementu osagarriak garatzeko aukera jaso da; esaterako, [eraikuntza- eta eraispén-hondakinetatik datozen material birziklatuen ekoizpena eta erabilera arautzen duen agindua](#) eguneratzea, eta dekretuaren gida tekniko bat prestatzea, eta alderdi zehatz batzuei buruzko eskuliburuak eta prestakuntzak sortzea.



Oso garrantzitsua da elikagai gutxiago xahutzea ekonomia zirkularreko eredu bateranzko trantsizioan

Hondakinak murrizteko ahalegin handienak jasotzen dituzten eremuetako bat elikaduraren sektorea da. 2022an, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak [elikagaien galerak eta xahuketa prebenitzeko lege-proiektua](#) aurkeztu zen, 2023ko maiatzean Kongresuak onartua. Lege-proiektu horrek kontsumitu gabeko elikagaien hondakinak murriztea du helburu, eta aprobetxamendua sustatzea.

Horretarako, [elikatze-kateko eragileek elikagaien galerak saihesteko plana izan beharko dute, eta galeren berri ematen beharko dute](#). Halaber, produktu Óitsusi, ez-perfektu edo ez oso estetikoek salmenta sustatu beharko dute, baldin eta produktu horiek kontsumorako egoera onean badaude, eta elikagai ekologiko, hurbileko eta soltekoen salmenta sustatu beharko dute. Era berean, elikagaien xahuketaren aurkako borrokan funtsezko tresna arautzailea izango dira [iraungitze-datari eta lehentasunez kontsumitzeko datari buruzko etiketatze-irizpide berriak](#).

Elikaduraren sektoreko zirkulartasunean aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da baliabideen erabilera optimizatzea, bizi-zikloaren ikuspegia hartuta, eta azpiproduktu eta hondakinen berrerabileran eta balorizazioan aurrera egitea; horretarako, aprobetxamendu-prozesu berriak garatuko dira, eta bioekonomiako estrategiak aplikatuko dira.





Elikagaien balio-katearen trakzioa deforestazioaren aurkako borrokan

Erosketa berdeko irizpideak ezarri eta balio-katea sustatuta, elikaduraren sektoreko enpresa handiek ingurumeneko beste arazo batzuen aurkako borrokan lagun dezakete, elikagaien xahuketa saihesteaz gain; esaterako, klima-aldaketa eta biodibertsitatearen babesa.

Nabarmentzekoa da [deforestazioari lotutako produktuak merkaturatzeari eta esportatzeari buruzko erregelamendu-proposamena \(COM/2021/706\)](#), zeinak elikagaien balio-katea bultzatu nahi baitu deforestazioaren aurkako borrokan.

Hain zuzen ere, erregelamendu horrek debekatu egiten du [deforestazioari eta basoen narriadurari lotuta dauden zenbait lehengai garrantzitsu \(edo lehengai horiek dituzten produktuak edo lehengai horiekin elikatu diren animaliak\) EBko merkatuan sartzea \(edo esportatzea\)](#); besteak beste, behi-azienda, kakaoa, kafea, palma-olioa, soja eta zura.

Erakunde ekologistak, sektoreko enpresa eta bidezko merkataritzako enpresa batzuek adierazi dute oso garrantzitsua dela deforestazioari eta basoen narriadurari lotuta dauden produktuen zerrenda azienda guztietara (ez bakarrik behi-azienda), kautxura eta artora zabaltzea, besteak beste, baita lehengai horien jatorriaren trazabilitatea egitea ere.

Halaber, nabarmendu dute beharrezkoa dela asmo handiagoko erregelamendu baten alde egitea, basoak ez ezik, CO₂ kapturatzeko funtsezkoak diren beste ekosistema batzuk ere barnean hartuko dituen; esaterako, belardiak.



PRODUKTUAK MERKATURATZEARI ETA ESORTATZEARI BURUZKO ERREGELAMENDU-PROPOSAMENA

COM/2021/706

Bizi-zikloaren amaieran sortzen duten inpaktuaz gain, hainbat elikagaien ekoizpenak (esaterako, soja, palma-olioa, ahuakateak, haragia eta beste ehunka lehengai gehiago) ekosistemak hondatzen dituzte, eta inpaktu larriak dituzte biodibertsitatean eta kliman. Gaur egungo mehatxuari aurre egiteko, Europako Batzordeak, [deforestazioari eta basoen narriadurari lotutako lehengai eta produktu eratorri zehatzak merkaturatzeari eta esportatzeari buruzko erregelamendu-proposamenaren](#) bidez, lehengai eta produktu jakinak ekoizteari, inportatzeari eta esportatzeari lotutako deforestazioa geldiarazi nahi du, eta ekoizpen-sistema jasangarriagoetara aldatzera animatu nahi ditu ekoizleak.





Ontzi eta bilgarri jasangarriak

Europako Batzordeak [ontziak eta ontzi-hondakinak arautzen dituen zuzentaraua berrikusteko proposamen bat \(COM/2022/677\)](#) argitaratu du. Ontzien birziklagarritasunari buruzko eskala-sistema bat proposatzen da, eta, ekintza eskuordetuetan ezartzen diren birziklapenerako diseinu-irizpideak betetzen direla bermatzeko, birziklagarritasun-ebaluazio bat gainditu beharko lukete. Berreskuratzea ahalbidetzeko, zenbait neurri proposatzen dira ontzi batzuen etiketei eta nahitaezko biltegi-, itzulketak- eta itzulera-sistemak ezartzeari buruz. Halaber, asmo handiko helburuak proposatzen dira plastiko birziklatuaren gutxieneko edukari dagokionez, zeinak aldakorak baitira ontzien kategorien arabera.

Estatuan, [1055/2022 Errege Dekretua onartu da, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa](#), zeinak ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko 2018/852 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten baitu eta plastikozko produktu jakinen inpaktua murrizteari buruzko 2019/904 (EB) Zuzentarauaren alderdietako batzuk garatzen baititu. Ontzi-hondakinak prebenitzeko eta elikagaien solteko salmenta handitzeko neurriak jasotzen ditu. Era berean, helburu zehatzak ezartzen ditu etxe, hotel, jatetxe eta kafetegietako ontzi berrerabilgarriak eta ontzi komertzial eta industrialei dagokienez. Halaber, [ekoizlearen erantzukizun zabalduaren erregimena garatzen du ontzi komertzialei eta industrialei dagokienez](#). Produktuen ekoizleek sortutako ontzi-hondakinak kudeatzearen ondoriozko benetako kostua eta kostu osoa ordaindu beharko dutela dio.

Gainera, [plastikozko ontzi ez-berrerabilgarriak buruzko zerga jarri da indarrean \(0,45 € plastiko ez-birziklatuaren kg bakoitzeko\)](#), [hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean jasoa](#).

Ontzien birziklagarritasuna neurtzeko merkatuan dauden tresnen artean, ontzi jasangarriak buruzko Herbehereetako KIDV institutuaren doako online tresnak ditugu. 2022an eguneratu zen [Sustainable Packaging Compass](#) tresnari esker, ontziratutako produktuen jasangarritasuna zehaztu eta aldera dezakete enpresek, haien birziklagarritasunean, zirkulartasunean eta ingurumen-inpaktuan oinarrituta. Aipatzekoa da kalkulak Herbehereetako sailkapen- eta birziklapen-instalazioen gaur egungo egoeran oinarrituta daudela; horrenbestez, datu batzuk orientagarriak baino ez dira izango. Horrez gain, [Birziklagarritasun-markak](#) tresnaren bidez, ontzi batek birziklagarritasun ona duen ala ez zehazten da, galderez eta testuinguru-informazioz osatutako erabaki-zuhaitzen bidez.

Era berean, erakundearen [Principles for Responsible Investment \(PRI\)](#) gideak helburu hauek dituzte: ontzietan plastiko problematikoen edo alferrikakoen ekoizpena eta erabilera ezabatzen laguntzea hala nahi duten inbertitzaileei eta beste alderdi batzuei; berrikuntzak egitea, gelditzen diren plastiko guztiak berrerabilgarriak, birziklagarriak edo konpostagarriak direla bermatzeko; eta materialak zirkulazioan jartzea, plastikoak ekonomian eta ingurumenetik kanpo mantentzeko. Horretarako, PRIk lau konpromiso-gida ditu inbertitzaileak orientatzeko: [Produktu petrokimikoak](#), [Ontzi eta bilgarrien fabrikatzaileak](#), [Kontsumo bizkorreko ondasunen enpresak](#) eta [Hondakinak kudeatzaileak](#).



PLASTIKOEN EKONOMIA BERRIAREN KONPROMISO GLOBALA

Plastikoetarako ekonomia zirkularreranzko trantsizioa bizkortzeko asmoz, [Plastikoen ekonomia berriaren aldeko konpromiso globalarekin bat egin du Euskadik](#), zeina Ellen MacArthur Fundazioak sustatzen baitu, PNUMArekin elkarlanean. Borondatezko ekimen bat da, eta plastikoaren erabilera murrizteko neurriak ezartzera, arlo horretan berritzera eta plastikozko produktuak ekonomian eta ingurumenetik kanpo mantentzera bideratzen ditu gobernauak eta enpresak.

Euskadik plastikoei buruzko era askotako neurriak ditu martxan, eta neurri horiek Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024ko Planean eta Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean jasota daude; adibidez: plastiko-hondakinatarako behin betiko soluzioak babestea, haiek hondakindegietan ezabatu ez daitezen, lehentasunezko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialen erosketak publiko eta pribatu berdea sustatzea, plastikozko hondakinak % 100 birziklagarriak izan daitezen eta erabilera bakarreko plastikozko poltsak funtsezko eragileekiko borondatezko hitzarmenen bidez ezaba daitezen lortzea.

Zein sektoreri aplikatzen zaie?





Elikagaien ontzietan eta elikagaiak ukitzen dituzten bestelako materialetan eduki birziklatua gero eta handiagoa denez, kezka da giza osasunaren babesa bermatzea, substantzia kutsatzaileak izan baititzakete. Horrenbestez, birziklapen-prozesuaren ondoren, ezinbestekoa da egiaztatzea plastikozko materialek ez dutela elikagaiak kalte ditzakeen ezein eratako kutsatzailerik.

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak [2022/1616 \(EB\) Erregelamendua](#) argitaratu zuen 2022ko irailean, [elikagaiak ukitzeko egindakoplastiko birziklatuzko material eta objektuei buruzkoa](#); haren bidez, indargabetu egin da 282/2008 (EE) Erregelamendua. Erregelamendu berrian, bi motatako birziklapen-teknologiak bereizten dira: teknologia egokituak eta teknologia berritzaileak. Azken horiek datu eta azterlan zientifikoak eman beharko dituzte plastiko-hondakinen deskontaminazioak elikagaiei inola ere eragiten ez diela frogatzeko.

Zenbait betekizun ezartzen dira plastikoa biltzeko eta aurretik tratatzeko. era berean, plastiko-intsumoaren hornidura-katean parte hartzen duten hondakin-kudeaketaren ustiatzaileek kalitatea bermatzeko sistema bat izan eta aplikatu beharko dute. Sistema hori erakunde independente batek ziurtatuko du.



Plastikoei eragindako ingurumen-inpaktua murrizteko, enpresa askok bilatzen dute, proaktiboki, lehengai tradizioaletatik ingurumena gehiago errespetatzen duten materialetarako aldaketa sustatzea. Horregatik daude hainbeste plastiko, bioonarrikoak, biodegradagarriak eta konpostagarriak. Hala ere, material horien inguruan erabilitako terminologiak nahasteak eragin ohi ditu kontsumitzaileen artean erabilerari eta sortutako ingurumen-inpaktuari dagokienez.

Hori dela eta, Europako Batzordeak, [bioonarriko plastikoei eta plastiko biodegradagarriari eta konpostagarriari buruzko komunikazioaren \(COM/2022/682\)](#) bidez, plastiko horiek bizi-ziklo osoan sortzen dituzten inpaktuak argitu nahi ditu, baita haien erabilerak ustez ingurumenerako dituzten onurak lortzea ahalbidetzen duela bermatzeko aplikazioak ere. Horrenbestez, zenbait neurri ezartzen ditu [oinarri biologikoaren edukia neurtzeko metodoa eta hari buruzko etiketak argitzeko, baita lehengai biologikoaren jasagarritasuna ere, bigarren mailako biomasa-iturriak lehenetsiz](#). Halaber, materiala benetan ezabatzeko definizioak, aplikazioak eta ziurtapenak argitzen ditu, kontsumitzaileak nahasi ez daitezten.



Deskarbonizazioa bizi-zikloaren ikuspegitik

Balio-kateko neutraltasuna

2021/119 (EB) Erregelamenduak neutraltasun klimatikoaren lortzeko esparrua ezartzen du, eta "Klimari buruzko Europako legeria" ere esaten zaio. Erregelamendu horrek betebeharrak gisa ezartzen du 2050ean neutraltasun klimatikoaren lortzeko konpromisoa, zeina Europako Itun Berdearen azken helburua baita.


Ildo beretik, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko Espainiako 7/2021 Lege onartu da, eta, Euskadin, trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko lege-proiektua izapidetzen ari da. Lege-proiektu horrek esparru juridikoa ezarriko du 2050erako BEG emisioetan neutraltasuna lortzeko, eta klimarekiko erresilienteagoa den lurralde baterantz aurrera egiteko, euskal industria sustatzeko beharrezko garapena aprobetxatuz.

Halaber, deskarbonizazio-helburuak erdiesteko, funtsezkoa izango da 2023/956 (EB) Erregelamendua, Karbonoagatik Mugan Doitzeko Mekanismoa (CBAM, ingelesezko siglen arabera) ezartzen duena. Mekanismo hori EBk garatu du, inportatutako produktuek emisio-eskubideen egungo merkataritza-sistemaren bidez Europako ekoizleek ordaintzen dutenaren prezio baliokidea ordain dezaten (EU ETS). 2023tik aurrera, zenbait produktu (esaterako, EBtik kanpo ekoiztutako eta EBra inportatutako zementua, altzairua, burdina, ongarriak eta elektrizitatea) CBAM mekanismoaren menpe geratuko dira, eta doako emisio-eskubideak jasotzeari utziko diote. Horrela, sektore elektrikoa eta energia-kontsumo handia duten sektore industrialak barnean egongo dira.

Bestalde, garraioaren deskarbonizazioari buruzko driver arautzaile nagusien artean, aipatzekoak dira hauek: errepideko eta itsasoko garraioa emisio-eskubideen salerosketan sartzea, ibilgailu arin eta astun berrien CO₂ emisioen estandarrak berrikustea datozen urteetan handitu egingo direlako, eta ibilgailu elektrikoaren baterien karbono-aztarna mugatzea.

Aldiz, eraikuntzaren eta energiaren sektoreetarako, eragin handia izango du REPowerEU planak. Europako Batzordeak aurkeztu zuen 2022ko maiatzean, Ukrainako gatazkaren ondoriozko arazoei aurre egiteko. Plan horrek zuzenketak egiten dizkie arlo hauetako zuzentzarauen inguruan abian diren berrikuspenei; besteak beste, energia berriztagarria (RED, ingelesezko siglen arabera), eraikinen errendimendu energetikoa (EPBD, ingelesezko siglen arabera) eta efizientzia energetikoa (EED, ingelesezko siglen arabera). RED zuzentzarauaren berrikuspenari dagokionez, EBn energia-iturri berriztagarrien kontsumoa handitzea proposatzen da. Eta, EPBD zuzentzarauaren berrikuspenari dagokionez, eraikinek eguzkia-energiako instalazioetarako prest egon beharko dutela; horretarako, lehenik, eraikin publiko eta komertzial berriei aplikatuko zaie, eta, aurrerago, eraikin guztiei, bizitegi-erabilerakoak barne.





Balio-katearen trakzioa deskarbonizazioaren helburuak erdiesteko

Enpresa handien berotegi-efektuko gas-emisioetako asko hornikuntza-katetik datoz.

Hori dela eta, ingurumen-jasangarritasunaren arloko driver arautzaile berriek balio-kateko eragile guztiei eragiten dieten asmo handiagoko eskakizunak dituzte.

2022ko otsailean aurkeztu zen [jasangarritasunaren arloan enpresek arreta egokiz jokatzeari buruzko zuzentarau-proposamenak \(COM/2022/071\)](#) dio enpresek, balio-kateak barne, ingurumeneko beren inpaktuak identifikatu, minimizatu eta saihestu behar dituztela, Parisko Akordioan ezarritako gehieneko berotze globalarekin (1,5 °C) bateragarria den estrategia baten bidez.

Zuzentarau horren arabera, Estatuan, [giza enpresa-jarduera transnazioaletan giza eskubideen babesari, jasangarritasunari eta arreta egokiari buruzko lege-aurreproiektua](#) proposatu da. Egun, garapen-bidean dago, eta kontsulta publikoko prozesua 2022ko martxoan amaitu da.

Industriaren deskarbonizazioa lortzeko, beharrezkoa da enpresek ekonomia zirkularreko estrategiak ezartzea, bizi-zikloko ikuspegiarekin, eta balio-kate osoa bultzatzea helburu klimatikoak betetzera.

Deskarbonizazioa sustatzen duten merkatuko driver-ak

Enpresek, deskarbonizazioaren inguruko esparru legegilearen ondoriozko betebeharre ez ezik, ekintza klimatikoa sustatzen duten merkatuko driver-ei ere egin behar diete aurre. Automobilgintzako, eraikuntzako eta beste sektore batzuetako enpresa liderrak eta eragileak ekimen eta aliantzetara atxikitzen ari dira neutraltasun klimatikoa lortzeko, eta gero eta garrantzi handiagoa ematen ari dira erreputazio-sistemei, ingurumeneko aintzatespen- eta gardentasun-neurri gisa. Eragin handiena duten ekimenetako bat [Science Based Targets Initiative](#) da, baina badira beste batzuk ere; esaterako, [Climate Action 100+](#), [We Mean Business Coalition](#), edo [Green Consumption Pledge](#). Gainera, hornitzaileak ebaluatzeko sistemak (adibidez, [EcoVadis](#)) enpresen ekintza klimatikoan ari dira jartzen arreta.



JASANGARRITASUNAREN ARLOAN ENPRESEK ARRETA EGOKIZ JOKATZEARI BURUZKO ZUZENTARAU-PROPOSAMENA

COM/2022/071

2022ko otsailean ezarri zen zuzentarauaren proposamena, eta enpresa-portaera jasangarria sustatu nahi du; horretarako, enpresak beren jardueraren inpaktu negatiboei heltzera bideratzen ditu, haien filialak eta balio-kateak barne. Horretarako, [hornitzaile guztien datuak lortu beharko dituzte enpresek, eta trakzio-lan handia ere egin beharko dute](#) ingurumenerako jasangarriak diren jardunbideetatik urruten daudenen kasuan.

Eragindako enpresei dagokienez, zuzentaruak tamaina handiko enpresen bi talde egiten ditu:

- **1. taldea:** mundu osoan 500 langile baino gehiago eta 150 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumen garbia dituzten EBko erantzukizun mugatuko enpresak.
- **2. taldea:** mundu osoan 250 langile baino gehiago eta 40 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumen garbia dituzten EBko erantzukizun mugatuko enpresak. Enpresa horiei, 1. taldekoei baino bi urte geroago hasiko zaizkie aplikatzen arauak.

Enpresek plan bat izan behar dute beren enpresa-estrategia Parisko Akordioan ezarritako gehieneko berotze globalarekin (1,5 °C) bateragarria dela bermatzeko. Gainera, klima-aldaketa enpresaren jardueretarako arrisku nagusia edo haien efektu nagusia izango balitz edo halakotzat identifikatu behar izango bazen, enpresak emisioak murrizteko helburuak sartu behar ditu planean.

Europako Kontseiluak onartu ondoren, EBko herrialdeek 2 urte dituzte beren ordenamendu juridikoan txertatzeko. [Zuzentaruau 2023an indarrean jartzea](#) espero da.

**SCIENCE BASED TARGETS INITIATIVE (SBTi)**SCIENCE
BASED
TARGETS*Emisioak murrizteko asmo handiko eta oinarri zientifikoko helburuak*

SBT ekimenak lehenengo estandarra garatu du tresna eta metodologia propioak erabilia. Hari esker, berotegi-efektuko gas-emisioak murrizteko helburuak ezar ditzakete enpresek, Parisko Akordioarekin eta IPCCrekin bat etorritik, berotze globala gehienez 1,5 °C-koa izateko eta 2050ean neutraltasun klimatikora iristeko. Ekimenak helburu horiek lortzeko jardunbide egokiak definitzen eta sustatzen ditu, baliabideak eskaintzen ditu, eta modu independentean ebaluatzen eta bideratzen ditu enpresek, epe motzerako helburuetarako 10 urteko aldiaren emisioak zenbat murriztuko liratekeen kontuan hartuta (konpentsazio-ekintzak kanpo). Ekimenaren harira, **enpresek hornikuntza-katea ere sartu behar dute hobekuntza-ahaleginetan, eta, beraz, trakzio-ahalmen handia du.**


Bestalde, SBTi ekimenak mundu-mailako lehenengo esparrua ezarri du helburu korporatiboak ezartzeko. Esparruak Net-Zero Estandar Korporatiboa du izena, eta zientzia klimatikoarekin bat datozen asmo handiagoko eta epe luzeko helburuak ezartzeko enpresek behar dituzten orientazioa, irizpideak eta gomendioak dakartza.

Gainera, ekimenak esparru espezifiko bat ezartzen du finantza-entitateentzat, **Financial Sector Science-based Targets Guidance** izeneko gida batekin. Bertan, sektorearen inbertsioak Parisko Akordioarekin nola bat egin azaltzen da, eta helburu horiek nola neurtu eta ezagutarazi jakinarazten da. Lurraren erabilera intentsiboa egiten dute enpresentzako mundu-mailako lehenengo araua ere garatu da: FLAG sektorea (Forest, Land and Agriculture). Gida metodologiko sektorialak ere baditu SBTi ekimenak; besteak beste, sorkuntza elektrikorako, finantza-instituzioetarako edo zementurako. Eta altzairurako, eraikuntzarako eta garraiorako ere ari da gidak garatzen, besteak beste,

SBTi ekimenara atxikitako enpresei dagokienez, Estatuko gehienak energia banatzeko, sortzeko eta garraiatzeko sektoreetakoak, automobilgintzakoak eta garraio-ekipoetakoak dira. Euskadin, oraingoz 12 enpresa daude atxikita; besteak beste, Iberdrola, IPT Aero, Siemens Gamesa Renewable Energy eta BBVA.

SBTi 2022 ekimenara atxikitako
Espainiako enpresak*

65

36
2021ean
ALDAKETA 2021ri
dagokionezEspainiako enpresek SBTi
ekimenarekiko duten konpromisoa handitzea15 sektore daude SBTi ekimenarekin
konprometituta - Mundua (2022)Txostenetik
ateratako irudiak:

**2022ko urtekari
klimatikoa. Zero
garbiaren eta ekintza
eraldatzailaren
aldeko enpresek.**



ANUARIO CLIMÁTICO 2022

Empresas por el
cero neto y la acción
transformadoraPacto Mundial
Red Española

ecodes



CLIMATE ACTION 100+

BEG emisore korporatibo handien ebaluazioa, zero-etorkizun garbirantz trantsizioa egiteko

Enpresek hiru helbururi dagokienez duten ingurumen-jarduera ebaluatzen du: emisioen murrizketa, gobernantza eta zabalkundea.

Erreferentzia-indize hori oso lagungarria da inbertitzaileentzat klima-aldaketari heltzeko enpresen asmoa eta ekintza ebaluatzeko. Ebaluazio-adierazleak enpresen datu publikoetan eta autozabalduetan oinarritzen dira. Datu horiek urteko txostenetan, jasangarritasun-txostenetan, prentsa-oharretan eta Carbon Disclosure Project (CDP) proiektuan biltzen dira.

Deskarbonizazio sektoriala bizkortzeko, eta lan-ildo berri gisa, 2021aren amaieran, Climate Action 100+ ekimenak lau estrategia sektorial global abiarazi zituen sektore hauetarako: hegazkingintza, altzairua, elikagaiak eta edariak, eta zerbitzu elektrikoak. Estrategia horiek balio-kate osoko eragile guztiak barnean hartzen dituzten ekintzak deskribatzen dituzte, industria horiek Parisiko Akordioan definitutako helburuekin bat etorrarazteko.



WE MEAN BUSINESS COALITION

2050erako zero-ekonomia global garbirantz trantsizio inklusiboa

We Mean Business irabazi-asmorik gabeko koalizio global bat da, eta negozioetan ardaztutako zazpi erakunde klimatikoko multzo nagusi batekin egiten du lan, zero-ekonomia garbi, bidezko eta erresistentea bizkortzeko.

Elkarrekin, enpresa-ekintza eta ekintza politikoa katalizatzen dituzte, 2030era bitartean emisio globalak erdira murrizteko, maila aurreindustrialekin alderatuta gehienez 1,5 °C-ra minimizatzeko helburuaren arabera.




GREEN CONSUMPTION PLEDGE

Enpresen trantsizio ekologikoa karbono-aztarna kalkulatuta eta murriztuta

Konpromiso hori 2021eko urtarrilean jarri zen martxan, Klimaren aldeko Europako Itunaren parte da, eta bost konpromiso nagusitan oinarritzen da:

1. Enpresaren karbono-aztarna kalkulatzeko, baita hornikuntza-katearena ere, eta hura murrizteko neurriak hartzea.
2. Enpresaren bereizgarri diren produktu jakinen karbono-aztarna kalkulatzeko eta murrizteko.
3. Salmenta osoetan produktu edo zerbitzu jasagarrien salmenta areagotzea.
4. Harreman publikoetako gastuaren parte jardunbide jasagarriak sustatzera bideratzea.
5. Karbono-aztarna dela-eta kontsumitzaileei emandako informazioa erraz aurkitzeko modukoa eta argia izan dadin ziurtatzea, eta eguneratuta edukitzea.

Atxikitako enpresek neurri zehatzak hartu behar dituzte bost konpromiso-arloetako hirutan gutxienez, eta betetze-maila datuen bidez frogatu eta argitaratu. 2022ko urtarrilean, fase pilotua amaitu zen. Konpromisoaren funtzionamendua ebaluatuko da, eta neurri berriak hartuko dira.

**ECOVADIS—CARBON MATURITY REPORT***Balio-kateko ekintza klimatikoaren ebaluazioa*


EcoVadis-en helburua da enpresen ingurumen- eta gizarte-jardunbideak hobetzea, hornikuntza-kate globalen eragina aprobetxatuta; bereziki garrantzitsua da automobilgintzan, banaketan, finantzetan eta beste sektore batzuetan. Hori lortzeko, lankidetzeta-plataforma bat erabiltzen du. Plataforma horrek jasangarritasun-sailkapenak eskaintzen ditu hornitzaileek gizarte-erantzukizun korporatiboko printzipioak enpresa-jardunbideetan txertatzeko duten moduari buruz, eta ebaluazio-fitxak biltzen ditu, zero eta ehun arteko puntuazioekin, eta hiru domina-mailarekin (brontzea, zilarra eta urrea). Ez du audiotetza-sistemarik, baina hornitzaileen eta EcoVadis-eko analisten euren autoebaluazioaren emaitzek ebaluatutako enpresen indarguneei eta hobekuntza-arloei buruzko ikuspegia eskaintzen dute.

Gainera, 2021ean, EcoVadis-ek **karbonoari buruzko ekintza-modulu bat** iragarri zuen, bezeroek balio-kateko bazkideen datu kritikoak bildu eta azter ditzaten, emisioak neurtzeko eta murrizteko. Modulu berri horren harira, **2022an *Carbon maturity Report 2022: hornikuntza-kateetako ekintza klimatikoaren egoera txostena* argitaratu da. Txosten horrek EcoVadis-en sarearen ekintza klimatikoa aztertzen du.**



Zer sektoreri aplikatzen zaie?	Automobilgintza	Eraikuntza	Energiaren sorrera	Banaketa	Metalgintza	Ekipa jasotzaileak	Garraio-ekipoak	Sorrera- eta transmisio-ekipoen ekoizpena	Finantzarioa
Science based targets Initiative (SBTi)									
Climate Action 100+									
We Mean Business Coalition									
Green Consumption Pledge									
EcoVadis—Carbon Maturity report									

● Goi-maila
 ● Erdi-maila
 ● Behe-maila / Ez da aplikatzen



Driver arautzaile eta merkatuko driver horiei aurre egiteko, beharrezkoa izango da ekoizpen-teknologia deskarbonizatuak garatzea eta aplikatzea, eta ingurumen-gardentasunaren arloan merkatuaren eskariei erantzuteko behar den informazioaren bilketa eta tratamendua sistematizatzea eta estandarizatzea.

Horren harira, karbono-aztarna neurketak egiteko eta informazioa emateko tresna bat da, eta, hari esker, beren jarduerak deskarbonizatzen jarraitzeko helburuak eta hobekuntza-ekintzak ezar ditzakete enpresek. Enpresek 3. mailako emisioen berri emateko izaten dituzten arazoei aurre egiteko, [World Business Council for Sustainable Development-en \(WBCSD\) Partnership for Carbon Transparency](#) jarri da abian.

Bestalde, Munduko Ekonomia Foroaren [Net Zero Industry Tracker txostenak](#) emisioen murrizketa ebaluatzeko metrika estandarrek biltzen ditu, eta sektorekako informazio baliotsua ematen die enpresei deskarbonizatzeko ahaleginak bideratzeko [Climate Ambition Accelerator](#) ekimenak trebakuntza eskaintzen die SBTi helburuak ezarri nahi dituzten enpresei.



WBCSD PARTNERSHIP FOR CARBON TRANSPARENCY (PACT)

3. mailako emisioekin erlazionatutako datuen trukea ahalbidetzea

WBCSD Partnership for Carbon Transparency ekimena 2021ean jarri zen abian, eta 3. mailako emisioekin erlazionatutako datuak lortzeko balio-kateek duten zailtasunari erantzun nahi dio. Horretarako, datuak trukatzeko sistema harmonizatu baterako oinarriak ezartzen ditu; sistema horrek soluzio teknologikoen eta produktuen balio-kateen arteko elkarlana eta integrazioa sustatuko ditu. 2022an, karbono-emisioei buruzko datuen truke estandarizaturako zehaztapen teknikoak lehenengo multzoa argitaratu da.



INFORME—NET ZERO INDUSTRY TRACKER 2022


Munduko Ekonomia Foroaren txosten hau Accenture-rekin eta 40 erakunde baino gehiagotako adituen ekarpenekin egin da, eta, haren bidez, esparru bat ezarri da **industria astunak zero garbiaren helbururantz egiten duten aurrerapena** gainbegiratzeko eta babesteko.


Metrika estandarren multzo bat identifikatu da emisioen eta efizientzia energetikoen murrizketa ebaluatzeko, baita errendimendua ere. Emisioen intentsitate-helburuak proposatzen ditu, sektoreko zero garbira igarotzeko estrategien berri emateko, eta informazio-hutsuneak nabarmendu ditu, gardentasuna are gehiago hobetzeko.

Txostenak sei industriaren azeleratzaile eta lehentasun sektorialak aipatzen ditu (altzairua, zementua, aluminioa, petrolioia, gas naturala eta amoniakoa), eta berehala jarduteko sektorearteko zazpi gomendio egiten ditu. Hauek eskaini nahi dizkie interesdun guztiei:

- Esparru bat eta metodologia bat, emisio industrialak sustatzen dituzten faktoreak eta zero-transformazioa ahalbidetzen duten faktoreak ulertzeko.
- Aginte-koadro kuantitatiboak eta kualitatiboak, denboran zehar industriak zero garbiraino izandako aurrerapenaren segimendua egiteko.
- Lehentasuneko eremuak, industrien zerbitu egin dezaten eta aurrerapena bizkor dezaten.

Ordezkaritza duten sektoreetako enpresek beren ahaleginak neutraltasunerantz bideratzeko gida gisa erabili ahal izango dute txostena.





CLIMATE AMBITION ACCELERATOR

Asmo Handi Klimatikoaren Azeleragailua sei hilabeteko azelerazio-programa bat da, eta tailerrak, online prestakuntzak eta eztabaida-mahaiak ditu zientzian oinarritutako emisioen helburuak (SBTi) ezartzean aurrera egin nahi duten eta erakundearen trantsizioa 2050erako zero garbirako trantsizioari heltzeko bide bat sortu nahi duten enpresei zuzenduta dago.



CLIMATE
AMBITION
ACCELERATOR



Nazio Batuen Munduko Itunak zuzentzen du, Ørsted eta Natura & Co. babesleek lagunduta. Asmo Handiko Azeleragailuak ekintza klimatikoa zabaltzeko nahi du tamaina, sektore eta eskualde guztietako enpresetan, eta, horrela, emisioak eskalan murrizteko konpromiso esanguratsuak bete ahal izango dituzte.

2022ko lehenengo edizioan, mundu osoko 450 enpresak baino gehiago parte hartu zuten, eta Espainiako emaitzak [Espainiako lehenengo edizioko emaitzen txostenean](#). Ikus daitezke.

Programaren bigarren edizioan 7 euskal enpresak parte hartu dute; 2022ko azaroan amaitu zen, eta hirugarren deialdia egitea espero da.



UNE-ISO IWA 42:2022 ARAUA: ZERO GARBIA

Zero garbirako ildoak

Arau honek zero garbia lortzeko lurralde-ikuspegiak (adibidez, nazioetakoak, eskualdeetakoak eta hirietakoak) eta erakundearen balio-kateko ikuspegiak bat etorritzeko nahi ditu.

Erakunde guztiak onartzea eta babestea du helburu, beste batzuek erabiltzeko zero garbiari buruzko politikak, esparruak, arauak edo bestelako ekimenak garatzen dituzten gobernantza erakundeak barne.

Borondatezko ekimenak osatzen ditu, eta bat etortzea errazten du; horrenbestez, zero garbiaren adierazpenen bat egin edo babestu nahi duen erakunde orok antzeko ikuspegia bereganatuko du, zer ekimeni lotuta dagoen alde batera utzita.

Arauan, helburu bakarra erabiltzen da zero garbiko erakunde guztientzat berotegi-efektuko gas guztiei dagokienez, ahal dela edo beranduen jota 2050ean, helburu komuna, ulergarria eta asmo handikoa eskaintzeko, berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko mundua egiten ari den ahaleginaren inguruko adostasun zientifikoaren harira (tenperatura hori ezingo da aldi batez ere gainditu, edo modu mugatuan gainditu ahal izango da aldi batez). Erakunde-mailako helburu hori bat dator Race to Zero kanpainako irizpideetan ezarritako helburuarekin.





Zero pollution


Prozesu industrialetako berrikuntza

Europako Itun Berdearen esparruan, zero kutsadura lortu nahi da 2050erako, Europan gai toxikorik egon ez dadin. Horretarako, 2021ean, Batzordeak **"Kutsadurarik ez" ekintza-plana** jarri zuen abian, aireko, uretako eta lurzoruko kutsadura osasunerako eta ekosistema naturaletarako kaltegarritzat jotzen ez diren, gure planetarako muga onargarriak errespetatzen dituzten eta, horrela, gai toxikorik gabeko ingurunea sortzen duten mailetaraino murrizteko asmoz.

Ekintza-plan honetako ekintza nagusietako bat **emisio industrialei buruzko zuzentaraua (COM/2022/156)** (IED, ingelesezko siglen arabera) berrikustea izan da, instalazio industrialen handietako kutsadurari aurre egiteko. Era berean, **ekonomia zirkularrari buruzko ekintza-plan berriak** eta **"Baseritik mahaira" izeneko estrategiak** ere iturriko emisioak murriztea eskatzen dute; emisio horietako batzuk ez dira sartzen IED zuzentarauaren gaur egungo aplikazio-eremuan.

Zero kutsaduraren arloan 2022ko berritasun nagusi gisa, IED zuzentarauaren berrikuspenak proposatzen du helmena zabaltzea, eta gaur egungo atalaseen azpitik dauden instalazioak sartzera, baita **sektore berri batzuk ere (behi-aziendako abeltegiak eta baterien eskala handiko ekoizpena)**; halaber, nekazaritzako jarduera industrial berriak sartu ahal izango dira Europako Batzordearen ekintza eskuordetuez baliatuta.

Teknika eskuragarri onenei lotuta dauden eta gaurdaino aukeran aplikatu diren baliabideen erabileraren errendimendu-mailei dagokienez, nahitaezkoak izatera pasatuko lirateke. Bestalde, berrikuspenak betebehartzat jasotzen du, halaber, 2030erako, enpresek ekonomia zirkular eta klimatikoki neutroari laguntzeko planak sartu beharko dituztela ingurumen-kudeaketako sistemetan.



EMISIO INDUSTRIALEI BURUZKO ZUZENTARAUAREN BERRIKUSPENA

2022/0104/COD

2022ko azaroaren 14an **Europako Parlamentuak egin zuen berrikuspenak** zenbat zuzenketa egiten ditu; besteak beste, hauek:

- Alderdi hauek proposatzen ditu: zuzentarauaren **aplikazio-eremutik** kanpo uztea pilen eta baterien muntaketa; meatzaritza sar dadin berriro aztertzea (ingurumen-inpaktu handikoa); behi- eta txerri-azienden eta eskortako hegaztien hazkuntza kentzea, eskala txikiko familia-nekazaritzan eta nekazaritza ekologikoan gauzatua; eta nabarmen handitzea abeltzaintzako ustiategiak zuzentarauan sartzeko gutxieneko atalasea.
- Beste xedapen bat sortzea proposatzen du, **baimen-prozedura bizkortua** egin ahal izateko (18 hilabete) 2050erako EBren helburu estrategikoak erdiesteko funtsezkoak diren instalazioetarako, Europako Batzordearen gauzatze-ekintza baten bidez ezarriko den "EB-50 teknologien" zerrenda batean oinarrituta.
- **Gehieneko emisio-balioei eta ingurumen-portaerako gehieneko balioei** buruzko eskakizun berriak instalazio berriei soilik aplikatu dakien zehaztea proposatzen du, edo zuzentarauaren transposizioa egin ondoren baimenak teknika eskuragarri onenei buruzko ondorio berrikusien arabera eguneratzen direnean.





Zero kutsaduraren arloko 2023ko beste berritasun garrantzitsu bat izan da **2023/851 (EB) Erregelamendua, zeinak ibilgailu berrien CO₂ emisioak murrizteko helburu berriak ezartzen baititu**, aurreko 2019/631 (EB) erregelamenduaren berrikuspenetik sortua.

Hain zuzen ere, berrikuspenak dio Europako Batzordeak **ibilgailuen bizi-ziklo osoaren CO₂ emisioak ebaluatze**ko eta haien berri emateko metodologia komun bat garatu beharko duela beranduen jota 2025erako; beraz, 2024ra arte, borondatezkoa izango da fabrikatzaileentzat emisio horien berri ematea, baina nahitaezkoa 2028ko urtariletik aurrera.

Helburuei dagokienez, araudiak emisioak murrizteko tarteko xedeak proposatzen ditu: 2030erako, % 55 turismo berrietarako; eta % 50 furgonetetarako. Xede horiek ezartzeko, 2021eko mailak hartu dira oinarritzat. 2035etik aurrera, murrizketak % 100ekoa izan behar du bi motatako ibilgailuetarako.

Illo horri jarraikiz, Europako batzordeak gehieneko emisio-balioen eta erregai- eta energia-kontsumoko benetako datuen arteko aldea aztertuko du gehienez 2026ra bitartean, eta metodologia bat eskainiko du fabrikatzaileen CO₂ emisio zehatzak doitzeko. Ekoizpen txikia (urtean 1.000 eta 10.000 auto berri bitartean, edo 1.000 eta 22.000 furgoneta berri bitartean) duten fabrikatzaileak salbuetsita egongo dira 2025eko amaierara arte.

CO₂ murrizteko helburuak gaur egungo legerian eta proposamenean

	2019/631 (EB) Erregelamendua (indarrean)	Helburu berriak (COM/2021/556)
Auto eta furgonetetarako 2025eko helburua	2021eko helburua baino % 15 gutxiago	Aldaketarik gabe
Autoetarako 2030eko helburua	2021eko helburua baino % 37,5 gutxiago	2021eko helburua baino % 55 gutxiago
Furgonetetarako 2030eko helburua	2021eko helburua baino % 31 gutxiago	2021eko helburua baino % 50 gutxiago
2035eko helburua	2030ean bezala (ez dago helbururik 2035erako)	% 100eko murrizketa





Azkenik, produktu kimikoak (CLP, ingelesezko siglen arabera) ontziratzeari eta etiketatzeari dagokionez, Europako Batzordeak [CLP erregelamenduaren berrikuspen-proposamena \(COM/2022/748\)](#) aurkeztu du. Berrikuspen horrek REACH erregelamenduaren hurrengo berrikuspenerako bidea prestatuko du; aurreikuspenen arabera, 2023an ezarriko da.




CLP ERREGELAMENDUAREN BERRIKUSPEN-PROPOSAMENA

COM/2022/748

Produktu kimikoak arriskutsutzat sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko EBko legeria berrikusteak eskuragarriago jartzen ditu arrisku kimikoei buruzko informazio eguneratua eta etiketatze-arau sinplifikatuak, honela:

- Produktu kimikoen arriskuei buruzko informaziorako prozedura hobeak eta bizkorragoak
- Arrisku kimikoen inguruko komunikazioa hobetzea, etiketatze-eta publizitate-betekizunak jarritz.
- Batzordeak arriskutsuak izan daitezkeen substantziak sailkatzeko proposamenak prestatu ahal izango ditu, eta, horrela, estatu kideekin eta industriarekin bat egin ahal izango du (bizkorrago identifikatuko dira).
- **Produktu kimiko birkargagarriei buruzko lehenengo arauak**, kontsumitzaileek modu seguruan erosi eta erabili ahal izan ditzaten solteko produktu kimikoak.

Ekintza eskuordetu bat ere ezarri du CLP erregelamenduaren esparruan arrisku-klase berriak sartzeko aldatzaile endokrinoen kasuan, baita ingurumenean deskonposatzen ez diren eta organismo bizidunetan meta daitezkeen edo uraren bizi-zikloan sartu eta zabaltzeko arriskua duten produktu kimikoen kasuan. Ekintza hori 2023aren hasieran jarriko da indarrean.





Finantza jasangarriak

Ekonomia berri bateranzko aldaketaren ardatza

Finantza jasangarrien helburua da behar bezala funtzionatuko duen eta ingurumen- eta gizarte-helburuak erdiesteko, finantza-sistemaren egonkortasuna bermatzeko eta gardentasun handiagoa sustatzeko aukera emango duen ekonomia bat lortzea, hazkunde ekonomikoa jasangarriagoa izan dadin.

Horren haritik, finantza jasangarriak ingurumenaren aldetik jasangarria den ekonomia bateranzko aldaketaren eragile bihurtuko direla dirudi, eta funtsezkoak dira Europako Itun Berdearen helburuak erdiesteko, baita klimaren eta jasangarritasunaren arloko EBren nazioarteko konpromisoak ere. Halaxe dio, batetik, [finantza jasangarriei buruzko ekintza-planak \(COM/2018/097\)](#), zeina Europako Batzordeak kaleratu baitzuen 2018an, eta Europako bonu berdeak eta beste tresna batzuk garatzen baititu ingurumenaren aldetik jasangarriak diren helburuak erdietsi nahi dituzten proiektuetan kapitala lortzeko; eta, bestetik, taxonomiari buruzko erregelamenduak, zeinak irizpideak ezartzen baititu jarduera ingurumenaren aldetik jasangarria den ala ez esateko, eta finantza-entitateak jasangarritasunaren eragile bihurtzen baititu.

Taxonomiari erregelamenduko

Taxonomiari buruzko erregelamenduarekin erlazionatutako berrikuntza nagusietako bat izan da, [klima-aldaketa arintzeari eta hartara egokitzeari buruzko 2021/2139 \(EB\) erregelamendu eskuordetua](#) onartu ondoren, 2022ko otsailean [klimari buruzko ekintza eskuordetu osagarria argitaratzea, deskarbonizazioa bizkortzeko eta 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzeko; gas naturala eta energia nuklearra hartzen ditu barnean](#). Baldintza zorrotzei jarraikiz, ekintza horrek energia nuklearrarekin eta gasarekin erlazionatutako jarduera espezifikoak jasotzen ditu EBren taxonomiak estaltzen dituen jarduera ekonomikoen zerrendan, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Horrez gain, 2023ko apirilaren 5ean, Europako Batzordeak [taxonomiari buruzko erregelamenduko gainerako lau ingurumen-helburuak hautatzeko irizpide teknikoak definitzen dituen erregelamendu eskuordetuaren zirriborroa](#) (ingurumenari buruzko erregelamendu eskuordetua) argitaratu zuen, eta hauek estaltzen ditu:

- uretako eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria eta babesa,
- ekonomia zirkular baterako trantsizioa,
- kutsaduraren prebentzioa eta kontrola,
- biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta berreskurapena.



ENERGIA NUKLEARRA ETA GASA TAXONOMIARI BURUZKO ERREGELAMENDUAK ESTALTZEN DITUEN JARDUERETAN SARTZEA

Testuinguru zatituan, jarduera horiek sartu dira, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- Neutraltasun klimatikoranzko trantsizioan laguntzea.
- Segurtasun nuklearreko eta ingurumen-segurtasuneko betekizunak betetzea (energia nuklearraren kasuan).
- Karbonotik energia berriztagarrietara igarotzen laguntzea (gasaren kasuan).

Gainera, informazio-betekizun espezifikoak ditu, eta enpresek, nola finantzarioak ala ez-finantzarioak, inbertitzaileei eskaini behar diete gasaren eta energia nuklearraren sektoreko beren jardueri dagokienez, gardentasuna bermatze aldera.



TAXONOMIARI BURUZKO ERREGELAMENDUKO 3-6 HELBURUEKIN ERLAZIONATUTAKO FINANTZA JASANGARRIEN INGURUKO PLATAFORMAREN TXOSTENA

Finantza jasangarrien plataforma aditu-talde batek osatzen du, eta finantza-politikak garatzen laguntzen dio Batzordeari, bereziki EBko taxonomia garatzen.

2022ko txosten metodologikoan, irizpideak eta irizpideen zirriborroa garatzeko erabilitako aurrekariak eta metodologia ezartzen dira.

Txosten horretan, Finantza Jasangarriei buruzko Plataformak Europako Batzordeari egindako gomendioak biltzen dira, bereziki taxonomiari buruzko erregelamenduko 3-6 helburuetarako hautapen-irizpide teknikoak ematekoak eta taxonomiaren diseinua eta taxonomiako irizpideak hobetzekoak.



Ingurumenari buruzko erregelamendu eskuordetuak informazioa zabaltzeari buruzko erregelamendu eskuordetuaren inguruko aldaketa-proposamenak biltzen ditu, informazioa emateko nahitaezko txantiloietako edukia barne.

Halaber, erregelamendu eskuordetuaren beste erregelamendu bat argitaratu zen, eta, haren bidez, klimari buruzko erregelamendu eskuordetua aldatu zen. Azken horrek klimaren arloko ingurumen-helburuak hartzen ditu barnean, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko.



GAINERAKO LAU INGURUMEN-HELBURUETARAKO ERREGELAMENDU ESKUORDETUEN ZIRRIBORROA

2023ko maiatzaren 3an eman zuen amaitutzat Europako Batzordeak Europar Batasuneko taxonomiari buruzko ekintza eskuordetuen zirriborroei dagokienez iritzia jasotzeko kontsulta-aldia. Europako Batzordearen helburua da 2023ko bigarren sei hilekoan ezartzea ekintza eskuordetu horiek.

Ingurumen-helburuetarako ekintza eskuordetuen zirriborroetan jasotako jardura berrien artean, hauek daude: **bidaiari eta salgaien aireko garraioa, uraren desalinizazioa, ingeniaritza zibila, arrisku klimatikoak kudeatzea ahalbidetzen duen softwarearen garapena, larrialdietako zerbitzuak, hiriko hondakin-uren tratamendua, hondakin arriskutsuen tratamendua, bigarren eskuko produktuen salmenta, produktu farmazeutikoen fabrikazioa eta kontserbazioa, habitata, ekosistemak eta espezieak berritzea barne.**

Gainerako lau ingurumen-helburuetarako ekintza eskuordetuak argitaratzearen eta klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko ekintza eskuordetuak aldatzearen ondoriozko betebeharrei dagokienez, Europako Batzordeak dio taxonomiarekin erlazionatutako adierazle ez-finantzarioen berri ematera behartuta dauden enpresa ez-finantzarioek jardura ekonomiko horietarako hautagarritasuna aztertu eta ezagutarazi beharko dute **2024ko urtariletik** aurrera, eta haiekin bat etorri beharko dutela **2025eko urtariletik** aurrera.





Merkatuko driver-ak

Finantza jasangarriak sartzearekin batera, mundu osoko merkatuek orientazioa aldatu behar izan dute Parisko Akordioko helburuekin eta deskarbonizazioari lotutako beste helburu batzuekin bat etortzeko. Eraitza gisa, askotariko ekimenak sortu dira finantza-sektorea helburu horiekin bat etortzera bultzatzeko; besteak beste, [Net Zero Banking Alliance](#), [Net Zero Asset Managers Initiative](#) eta [Glasgow Financial Alliance for Net Zero](#).



NET ZERO BANKING ALLIANCE

Nazio Batuek sustatu dute aliantza hau, eta **ekonomia zero emisio garbietara igarotzeko prozesuan bankuek duten eginkizuna sustatzea** du helburu. 2022ko azaroan argitaratuko du bere lehenengo txosten kolektiboa, kide fundatzaile guztiek 2030erako tarteko helburuak ezarri ostean.

Mailegu- eta inbertsio-zorroak 2050erako zero emisio garbiekin lerrokatzera konprometitu dauden bankuak biltzen ditu ekimenak (**kideak munduko banku-aktiboen % 40 baino gehiago dira**), eta, hartara atxikitzeko, konpromiso-adierazpen bat sinatu behar da; bertan, mailegu- eta inbertsio-zorroetako BEG emisio operatibo eta egozgarrien trantsizioa ezarriko da, eta 2030erako eta 2050erako tarteko helburuak finkatuko dira. Lehenengo helburuek bankuaren eragina esanguratsuagoa den lehentasunezko sektoreetan jartzen dute arreta; alegia, zorroetan BEG gehien sortzen dituzten sektoreetan. Gainera, entitateek hitzemanden dute urtero argitaratuko dituztela emisioak eta trantsizio-estrategien aurrerapena.



NET ZERO ASSET MANAGERS INITIATIVE

Emisio garbien helburua erdietsi nahi du ekimen honek, eta **aktiboak kudeatzeko industriari** jartzen du berariaz arreta. Race to Zero ekimenaren parte da, eta aktibokudeatzaileen talde batek osatzen du. Kudeatzaile horiek 2050erako edo lehenago zero BEG emisio garbi erdiesteko helburuarekin bat datozen inbertsioa babesten dituzte. Ekimen horrekin bat egiteko, atxikitako aktibo-administratzaileek hauek egin behar dituzte:

- Tarteko helburuak ezartzea 2050erako zero emisio garbi lortzeko helburuari jarraikiz kudeatzen diren aktiboen proportzioarako, eta behin-behineko helburuak ezartzea 2030erako, CO2 emisioak % 50 murrizteko IPPCak ezarri duen beharrari jarraikiz.
- Bost urtez behin behin-behineko helburuak berrikustea, eta kudeaketapeko aktiboen proportzioa handitu dadin sustatzea, % 100era iristeko.
- 1. eta 2. mailako emisioak kontuan hartzea eta, ahal den neurrian, 3. mailakok ere bai.
- [Task Force on Climate-Related Financial Disclosures](#) (TCFD) zabalkundeak argitaratzea, ekintza klimatikoko plan bat barne.



GLASGOW FINANCIAL ALLIANCE FOR NET ZERO - GFANZ

Race to Zero ekimenarekin bat etorritik, BEG emisiorik gabeko ekonomiaranzko trantsizioa bizkortzearekin konprometitutako finantza-entitateen koalizio global bat da GFANZ. Gaur egun, **450 finantza-entitatek osatzen dute koalizioa, eta haietatik 10 Espainiako entitateak dira** (Abanca, BBVA, BBVA Asset Management, Banco Santander, Santander Asset Management, CaixaBank, Banco Sabadell, Bankinter, Ibercaja eta Ibercaja Banco).

Entitate horiek hainbat tresna eta metodologia dauzkate eskura, eta, haiei esker, beren jarduera komertzialak 1,5 °C-ko helburuarekin bat etorraraz ditzakete, eta bizkorrago zabal dezakete kapitala merkatu deskarbonizatuera. 2022ko ekainean, zero garbiranzko trantsizio-planetarako gida bat argitaratu du koalizioak: [Financial Institution Net-Zero Transition Plans](#).



Tresnak

Askotariko tresnak garatzen ari dira finantza jasangarriari buruz, hala nola [ISO 14030 arauak: zor berdeko tresnak](#). Arau horietan, proiektu, aktibo eta laguntza-gastu hautagarriak finantzatzen dituzten bonu eta mailegu "berdeak" izendatzeko printzipioak eta betekizunak ezartzen dira; arau horietako 3. atala, taxonomiari buruzkoa, 2022an argitaratu da. Bestalde, [The Partnership for Carbon Accounting Financials](#) plataformak tresnak eskaintzen dizkie beren zorroa Parisko Akordio Klimatikoarekin bat etorerrarazi nahi duten finantza-erakundeei.



THE PARTNERSHIP FOR CARBON ACCOUNTING FINANCIALS (PCAF)

Karbonoaren Kontabilitaterako Finantza Plataformak zientzian oinarritutako helburuak ezartzeko eta beren zorroa Parisko Akordio Klimatikoarekin bat etorrazteko beharrezko abiapuntua eskaintzen die finantza-erakundeei, kontabilitate-estandar globalaren eta finantza-industriarako BEG txostenen bidez. 2022an, gertaera garrantzitsu batzuen garapenean aurrera egin du plataformak; besteak beste, hauek dira:

- **PCAF arauaren bigarren edizioa:** 2021eko amaieran BEG emisioen kontabilitaterako metodologia berriak garatu ondoren, finantza-industriarako PCAFen BEG emisioei buruzko Kontabilitaterako eta Informaziorako Arau Globala ere berrikusi egin da, eta 2022ko amaieran argitaratzea espero da. Arau horrek PCAF estandarren printzipioak markatzen ditu.
- **Europako eraikinak neutraltasunera iristeko finantzaketari buruzko gida:** PCAFen "Financing towards net-zero buildings" proiektuaren esparruan prestatu da gida, eta finantza-erakundeentzako orientabideak eskaintzen ditu emisio garbirik ez sortzeko eta eraikinen zorroak deskarbonizatzeko zer egin behar den jakin dezaten.
- Higiezin eta aseguru sektoreekin erlazionatutako emisioak eta kapital-merkatuetako emisioak kontabilizatzeko eta jakinarazteko zirriborroak.





Bonu Berdeak

Europako Banku Zentralak (BCE) neurri berriak iragarri ditu klima-aldaketa Eurosistemaren diru-politikaren esparruan sartzeko

Neurri horien bidez, **BCEk kontuan izango du klima-aldaketa bonu korporatiboak erostean, berme-aktiboen sisteman, informazioa zabaltzeko betekizunetan eta arriskuen kudeaketan**, jarduketa klimatikoko planarekin bat etorritik. Horrela, klima-aldaketaekin erlazionatutako finantza-arriskua murriztuko da Eurosistemaren balantzean, gardentasuna sustatuko da, eta ekonomiaren trantsizio berdea babestuko da. Hauek dira neurri nagusia:

- **Bonu korporatiboak edukitzea** (2022ko urritik aurrera). Eurosistemak bonu korporatiboak pixkanaka deskarbonizatzea du helburu, Parisko Akordioa helburuekin bat etorritik. Horretarako, Eurosistemak **portaera klimatiko hobea duten jaulkitzaileengana** joko du, datozen urteetan espero diren amortizazio handiak berriro inbertituta. Portaera klimatiko onena neurtzeko, BEG emisio txikiagoak, karbono-emisioak murrizteko asmo handiagoko helburuak eta informazio klimatikoaren zabalkunde hobea hartuko dira kontuan. Halaber, BCEk bonu korporatiboekin erlazionatutako informazio klimatiko argitaratzen hasiko da aldian-aldian, 2023ko lehenengo hiru hilabeteetatik aurrera.
- **Berme-aktiboen sistema.** Eurosistemak mugatuko egingo du entitateek jaulkitako aktiboen proportzioa, baldin eta karbono-azterna handia badute eta Eurosistemarengandik finantzaketa lortzeko kontrapartidako entitate indibidualek berme gisa erabil baditzaizkete. Mugen sistema berriak klima-aldaketa lotutako finantza-arriskua murriztu nahi ditu Eurosistemaren kreditu-eragiketetan. Neurri hori 2024 amaitu baino lehen aplikatzea espero da, beharrezko baldintza teknikoak baldin badaude.
- **Informazio klimatikoa zabaltzeko betekizunak berme-aktiboei dagokienez.** Eurosistemak **jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzko zuzendaraua** (CSRD, ingelesezko siglen arabera) ezarritako irizpideak betetzen dituzten aktibo negoziagarriak eta enpresa eta zordunen kredituak soilik onartuko ditu berme-aktibo gisa Eurosistemaren kreditu-eragiketetan, zuzendaraua erabat ezarri ostean. CSRD zuzendaraua uste baino beranduago ezarri denez, onarpen-irizpide berriak 2026an aplikatzen hastea espero da.
- **Arriskuaren ebaluazioa eta kudeaketa.** Eurosistemak gardentasun handiagoa eskatuko die kalifikazio-agentziei kalifikazioetan arrisku klimatikoak txertatzeari dagokionez, baita asmo handiagok jokatzeko ere arrisku horiei buruzko informazioa zabaltzeko betekizunetan. Eurosistemak gutxieneko irizpide komun batzuk adostu zituen banku zentral nazionaletako kreditua ebaluatzeke barne-sistemek kalifikazioetan arrisku klimatikoak nola txertatu behar litzuzketen finkatzeko. 2024ko amaieran hasiko dira aplikatzen irizpide horiek.



BCEren BONU KORPORATIBOAK ORIENTATZEKO PUNTUAZIO KLIMATIKOA

Bonuak edukitzearen inguruko puntuazio klimatiko globalak hiru azpipuntuazio konbinatzen ditu:

- **Atzera begirako jaulkitzaileen** azpipuntuazioa jaulkitzaileen iraganeko jaulkipenetan oinarritzen da. **Enpresen errendimendua aztertzen du, sektore espezifiko batean pareekin alderatuta**, baita bonu hautagarrien jaulkitzaile guztiekin alderatuta ere. Errendimendua hobea dutenek puntuazio hobea jasotzen dute.
- Helburu prospektiboen azpipuntuazioa **jaulkitzaileek etorkizuneko berotegi-efektuko gas-emisioak murrizteko ezarri dituzten helburuetan** oinarritzen da. Asmo handiagoko deskarbonizazio-helburuak dituzten enpresek puntuazio hobea jasotzen dute, eta horrek emisioak murriztera animatzen ditu.
- Zabalkunde klimatikoaren azpipuntuazioa **jaulkitzaileek berotegi-efektuko gas-emisioei buruz ematen duen informazioaren ebaluazioan** oinarritzen da. Kalitate handiko informazioa duten jaulkitzaileek puntuazio hobea jasotzen dute. Horrela, bonu-jaulkitzaileek klimari buruz duten informazioa hobetzen dute.

Jaulkitzaileen puntuazio klimatikoek eragina izango dute haztapan erlatiboan, Eurosistemaren aribideko berrinbertsioko bonu korporatiboen erosketak bideratzen dituen erreferentzian. Ondorioz, portaera klimatiko ona duten enpresek jaulkitako bonu gehiago erosiko dira, eta portaera klimatiko txarra dutenen bonu gutxiago.

Gainera, Eurosistemak puntuazio klimatikoa erabiliko du merkatu nagusian egiten dituen eskaintzak egokitzeke, errendimendu klimatiko hobea duten jaulkitzaileei lagundu eta puntuazio txikiagoa duten jaulkitzaileen bonuei epemugak ezartze aldera.



EUROPAKO BONU BERDEEI BURUZKO ERREGELAMENDU-PROPOSAMENA

2021ean, Europako Batzordeak bonu berdeen Europako estandar bati buruzko erregelamendu boluntario bat (EU GBS) proposatu zuen, enpresek eta agintari publikoek kapital-merkatuetan funtsak bildu eta inbertsioak finantzatzeko bonu berdeak erabil ditzaketela azaltzeko; bonu horiek jasangarritasun-betekizunak bete behar dituzte, eta *greenwashing*-etik babesten dituzte inbertitzaileak.

Europako Parlamentuan, batzorde erantzule gisa izendatutako Ekonomia eta Diru Kontuen Batzordeak [txosten bat argitaratu zuen 2022ko maiatzean. Txosten horrek zuzenketa garrantzitsuak egiten ditu:](#)

- **Aplikazio-eremua zabaltzea.** Gardentasun-betekizunak aplikatzen dira bonu berde gisa merkaturatzen diren bonu guztietarako; besteak beste, bonuak jaulkitzearen ondoriozko diru-sarreraren erabilerari buruzko legeria taxonomikoarekin bat etortzea.
- **Gardentasun handiagoa energia nuklearrari eta gasari dagokienez.** Gardentasun-betekizun zorrotzagoak ezartzen dira. Horrela, bonu berdeen jaulkitzaile batek diru-sarrerak energia nuklearrarekin edo gas fosilarekin erlazionatutako jardueretara bideratu nahi dituenean, adierazpen bat agertu beharko da EuGB-ren informazio-fitxako lehenengo orrialdean, ondo ikusteko moduko tokian.
- **Jarduera marroiak.** Enpresa edo jarduera oso kutsatzaileek EuGB etiketa erabil ez dezaten benetan direnak baino ekologikoagoak direla pentsarazteko, EuGB guztiek trantsizio-plan egiaztatuak izatea eskatzen da.
- **Ikuskapen handiagoa.** Merkatuaren presio handiagoa bermatzen da, arauak bete daitezzen; horretarako, legeko baliabideak eskainiko zaizkie inbertitzaileei, jaulkitzaileak arauak bete ez dituelako bonu berde baten balioa gal ez dadin.

Fiskalitate jasangarria

Zerga Erreformaren Liburu Zuriak nabarmentzen du Espainiako zerga-sisteman pisu txikia dutela ingurumen-zergek, eta, besteak beste, fiskalitate jasangarriko askotariko neurriak proposatzen ditu, **deskarbonizazioa eta ekonomia zirkularra sustatzeko**. Fiskalitate "berdeko" proposamenek energia elektrikoan eta garraioan jartzen dute arreta, batez ere, sektore horiek lehentasunezkoztat jotzen baitira, baina baita hondakinetan eta urean ere.

Neurri nagusi gisa, Batzordeak **"dieselaren gaineko zerga"** izeneko berreskuratzen du, dieselaren eta gasolinaren zergapetze-motak berdindu daitezen proposatzen baitu.


Zerga bereziekin gertatzen den bezala, aldaketa hori araudi komunitarioarekin nola uztartzen den aztertu beharko da.

Zerga-neurri zorrotzagoen ordainetan, elektrizitatearen gaineko zerga txikitzea proposatzen du, eta ekoizpenaren balioarekin gaineko % 7ko zerga kentzea.

Erreforma horien guztien osagarri gisa, ekonomia zirkularra sustatzera bideratutako proposamenak egiten dira. Proposamen horiei dagokienez, Batzordeak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Lege berrian jasotako bi zergak ditu kontuan: hondakinak hondakindegira eramateari, errausteari eta batera errausteari buruzko Estatuko zerga, eta plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga.

Hona hemen beste neurri garrantzitsu batzuk: **agregakinak erauztearen eta ongarri nitrogenatuak erabiltzearen** gaineko zerga, trafikoaren gaineko udaltasa bat jartzea hirietan sartzeko, "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioaren pean, eta instalazio industrial eta abeltzaintzako instalazio handiei buruzko fiskalitatearen hedapena eta harmonizazioa.





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE